



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko martxoaren 31

32. ZK.

---

### **A U R K I B I D E A**

**B SAILA:**

**Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroan nekazaritzako ustiatuei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duena.  
Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Murugarrengo Kontzejuak 2003tik 2008ra bitarte jasotako laguntzei eta dirulaguntzei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina (6. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroan nekazaritzako ustiatzei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duena.**

### *LANDA GARAPENERAKO ETA INGURUMENENKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak Nafarroan nekazaritzako ustiatzei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duen Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori 2009ko ekainaren 26ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru lege honek aukera emanen die ustiatzei txiki eta ertainei –Nafarroako gehienak halakoak dira– beren jarduera nagusiaz gain beste jarduera osagarri bat garatu ahal izateko. Hala, abeltzaintzako edo nekazaritzako ekoizpena jarduera nagusizat izateaz gain, produktu horiek eraldatu eta merkaturatzei eratorritako balio erantsia gehitzen zaio.

Foru lege honen xedea da, halaber, abeltzaintzako edo nekazaritzako ustiatzei diru iturriak dibertsifikatzea, halako moduz non bertan arautzen diren jarduerak ustiatzei errentak handitu eta sektorea bideragarriagoa egiten duten.

Foru lege honek ahalbidetuko du lehen sektoreak jarduera garrantzitsua izaten jarraitzea gure erkidegoan. Halaber, ahalbidetuko du jarduera horrek landa eremuko populazioaren sektore garrantzitsuen jarduera nagusi izaten jarraitzea, eta, ondorioz, jendea herrietan geratzea eta ingurumena zaintzea.

#### **1. artikulua.** Helburua eta xedeak.

Foru lege honen helburua da Nafarroako nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei lotutako nekazaritzako elikagaien zuzeneko salmenta, prestaketa eta produkzioa arautzea eta sustatzea.

Hauek dira foru lege honen helburuak:

a) Nekazaritzako egiturak hobetzea, nekazari-tzatik eta abeltzaintzatik bizi diren pertsonentzat errenta duinak eta kontsumitzaileentzat prezio bidezkoak lortzeko.

b) Nekazaritzako, abeltzaintzako edota elikagaien ustiatzei edo enpresa bideragarriak eta iraungarriak sortzea eta sustatzea.

c) Ziurtatzea lehenengo sektoreko ustiatzei jarraipena, landa ingurueneko garapen ekonomikoaren oinarritzeko tresna baitira, eta tokiko baliabidei lotuago dauden sistemak mantentzea, ahalik

### **IRIZPENA**

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak 2010ko otsailaren 2an eta 4an eta martxoaren 24an eginiko bileretan onetsia.

### **Foru Lege proposamena, Nafarroan nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duena**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Ekoizpen zentroetan eraldaketak egitea oso errotuta dago betidanik Nafarroan, eta goranzko joera duen jarduera da; izan ere, landa eremueta-ko familiek, batez ere nekazariak eta abeltzainak, beren errentak dibertsifikatzeko eta osatzeko beharra izaten dute.

Beharrezkoa da nekazaritzako ustiatzei egiten diren nekazaritzako elikagaien arloko ekoizpenak arautzea, araudi horrek ukitzen dituen enpresak zehaztea eta beharrezkoak diren baldintzak ezartzea enpresa ekoizle-eraldatzailea izan ahal izateko, hori ekoizle-eraldatzaileen eta kontsumitzaileen mesederako izanen baita.

eta pertsona gehienek iraun dezaten familia-nekazaritzaren esparruan.

d) Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien biziraupena ahalbidetuko duen balio erantsi gehigarri bat lortzeko aukera ematea.

e) Enplegua sortzea, nekazari gazteak jarduera horretan hasia eta enpleguaren egonkortasuna erraztea.

f) Gure nekazariak eta abeltzainak lehiatu ahal izatea araudi hau aspalditik duten Europako beste erkidegoetako baldintza beretan.

g) Produktu "berezituen" aukera bat sortzea, haien kalitateari, osasungarritasunari eta onargarritasunari begira, gizartean gero eta gehiago baloratzen den merkatua asetzeko.

h) Merkaturatze-zirkuitu laburrak eta zuzenak sustatzea, ekoizlearen eta eroslearen aprobetxamendu zuzena ahalbidetze aldera, produktu horien lekualdatze-, bitartekaritza- eta merkaturatze-gastuen murrizketaren ondorioz.

## 2. artikulua. Aplikazio eremua.

Legearen aplikazio-eremua da nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiei lotutako artisau-ekoizpenen antolamendua.

## 3. artikulua. Lurralde eremua.

Foru lege hau Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzekoa izanen da eta aplikatuko zaie, hain zuzen, Nafarroako Ustiategien Erregistroan erregistratutako nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiei.

## 4. artikulua. Definizioak

Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiei lotutako ekoizpena da:

a) Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuak erabili eta eraldatzeko jarduera, Nafarroako Ustiategien Erregistroan erregistratutako nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiek eginikoa, soilik ustiategi horietan lortutako lehengaietatik abiatuta.

b) Salmenta zuzena: merkataritzako jarduera, zeinetan ez baitago ekoizle-eraldatzailearen eta kontsumitzailearen arteko bitartekaririk.

## 5. artikulua. (KENDUTA).

6. artikulua. Beren produktuak eraldatzen dituzten nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiek bete beharreko baldintzak.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien titularrek ondoko baldintzak bete beharko dituzte

bere produktuak eraldatu, egin eta zuzenean saldu nahi badituzte:

a) Nafarroako Nekazaritzako eta Abeltzaintzako ustiategien erregistroan inskribaturiko ustiategi baten titular izatea.

b) Instalazioak irekitzeko lizentzia eta jarduera lizentzia izatea, 4/2005 Foru Legean ezarritakoaren arabera beharrezkoa bada.

c) Eraldatutako produktu guztiak kasuan kasu nekazaritzako ustiategikoak izatea.

d) Ustiategiek betetzea indarrean dagoen legerian Nekazaritza Politika Bateratuko laguntza zuzenak jasotzen dituzten nekazariarentzat ezarritako baldintzak, kudeaketari eta nekazaritzako eta ingurumen arloko baldintza egokiei dagokienez.

**7. artikulua.** Identifikazioa, elikagaien segurtasuna eta trazabilitatea.

1. Identifikazioaren, elikagaien segurtasunaren eta trazabilitatearen printzipioak bete beharko dituzte nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien titularrek, baldin eta salmenta zuzenari edo beren produktuen eraldaketari lotutako ustiategien parte izan nahi badute.

2. Produktuen izaeraren eta indarrean dagoen legeriaren arabera, ontziratutako produktuak etiketatzeko, aurkezteko eta argitaratzeko gutxienez, informazio hau eman behar da:

a) Izendapen komertziala.

b) Pertsona arduradunaren nortasuna eta helbidea, produktuaren jatorria, izaera, osagaiak eta, hala balitz, gehitu zaizkion eransgarriak.

c) Kalitatea era bereizgarriak, halakorik badu.

d) Produktua erabiltzeko edo kontsumitzeko gomendatutako epea, ohartarazpenak, aurreikus daitezkeen arriskuak, erregelamendu bidez ezarritako erabilera-debekuak eta, kasua bada, ekoizpen-data.

e) Fabrikazio lotea eta produktuaren kontserbazio egokirako beharrezkoak diren jarraibideak.

3. Soltean saltzen diren nekazaritzako produktuek eta elikagaiek identifikazio-agiri bat eraman beharko dute berekin, eta bertan jasoko da, gutxienez, aurreko idatz-zatiko b) eta c) letretan zehazturikoa.

**8. artikulua.** Nekazaritzako produktuaren eta elikagaien segurtasunaren printzipioa.

Nekazaritzako ustiategiekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresak dira ekoizten eta prestatzen dituzten produktu guztien segurtasuna

sunaren arduradun, eta, ondorioz, zaindu behar dute erabili eta ekoizten dituzten produktu guztiak kaltegabeak direla. Zehazki, garatzen duten jarduerari aplikatzekoa zaion araudian ezarritako betekizunak bete beharko dituzte beren produktuen ekoizpenaren, eraldaketaren, ontziratzearen eta merkaturatzearen fase guztietan.

Nekazaritzako ustiatuekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresek izan beharko dituzte une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezarritako autokontrol sistemak, garatzen duten jardueraren arabera.

**9. artikulua.** Nekazaritzako produktuen eta elikagaien trazabilitatea.

1. Nekazaritzako produktuen eta elikagaien trazabilitateak berekin dakar haien prozesu osoa jarraitu ahal izatea, ekoizpenaren, eraldaketaren, ontziratzearen eta merkaturatzearen fase guztietan; horrek hartzen ditu, halaber, produktuaren biltegiatzea, garraioa, salmenta eta edonolako eskualdatzea, doakoa nahiz kostu bidezkoa. Gaitasun hori zabaldu behar da osagaietara, lehegaietara, gehigarrietara eta produktu horri eranstekoak zaizkion edo erantsi ahal zaizkion substantzietara.

2. Trazabilitatea autokontrol-sistemen osagaie-tako bat da, eta, hain zuzen, Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritzako edota elikagaien arloko enpresa guztiak behartuta daude trazabilitatea ezartzera elika-katearen etapa guztietan, prozedura egoki, ulergarri eta ziurtagarrien bidez. Trazabilitate-prozedurek ahalbidetzen dute edozein unetan ezagutu ahal izatea, sortutako informazioaren bidez, zein diren produktu eta lehegaien hornitzaileak eta zein enpresa hornitu diren.

3. Nekazaritzako ustiatuekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresek kontrolerako zerbitzu ofizialen eskura jarriko dute trazabilitate-sistemari buruzko informazio guztia, bai eta sistema horretatik eratorritako edo sistema horrek sorturiko informazioa ere.

**10. artikulua.** Salmenta zuzenaren motak.

Ekoizleek hiru baimen-araubideren artean hautatu ahal dute, osasun eta erregelamendu arloan:

1. Salmenta zuzena: egoera horretan daude ustiatuegietako titularrak, baldin eta beren produktua azken kontsumitzaileari saltzen badiote, bai ustiatuegian bertan bai Nafarroako Foru Komunitateko nahiz autonomia erkidego mugakideetako merkatu eta azoketan.

2. Produktzioaren zati bat azken kontsumitzaileari zuzenean saltzea eta beste zati bat bitartekari

baten bidez saltzea. Aukera hau osasun-erregistrotik salbuetsita egonen da.

3. Produktzio osoaren salmenta zuzena, Europar Batasunean saltzeko osasun baimenarekin.

**11. artikulua.** Salmenta zuzena.

1. Salmenta zuzena egiten duten nekazaritzako ustiatuekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresek ezaugarri hauek izanen dituzte:

a) Ekipamenduari eta funtzionamenduari buruzko zenbait baldintza beteko dituzte, Europako araudi indardunari jarraikiz.

b) Higienearen printzipio orokorrak ziurtatuko dituzte eta, kasua bada, ekoizten duten produktuaren berariazko irizpide mikrobiologikoak betetzen direla ere bai.

c) Arrisku eta kontrol gune erabakigarrien azterketari (APPCC) buruzko sistema bat abian izanen dute, edo, kasua bada, higiene-jardunbide egokien gida bat (GPCH).

d) Ekoizpen osoa merkaturatuko dute azken kontsumitzaileari zuzenean salduta, azoketan, ekoizpen zentroaren gertuko ingurunean, 853/2004 (EE) Erregelamenduko 1. artikuluko 5. idatz-zatiko a) letrak xedatzen duenarekin bat.

e) Ez dago salmentarako kopuru-mugarik.

2. Salmenta zuzeneko ustiatuegi bakoitzak bere jarduerari buruzko aitortpen bat egingen du, eta aitortpen honen edukia erregelamenduz garatuko da.

**12. artikulua.** Osasun-erregistrotik salbuestea.

Osasun-erregistrotik salbuetsita dauden nekazaritzako ustiatuekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresek ezaugarri hauek izanen dituzte:

a) Jarduera bermez garatzeko beharrezkoak diren ekipamenduari eta funtzionamenduari buruzko baldintzak beteko dituzte, Europako araudi indardunari jarraikiz.

b) Higienearen eta osasungarritasunaren printzipio orokorrak ziurtatuko dituzte eta, kasua bada, ekoizten duten produktuaren berariazko irizpide mikrobiologikoak betetzen direla ere bai.

c) Arrisku eta kontrol gune erabakigarrien azterketari (APPCC) buruzko sistema bat abian jarriko dute, edo, kasua bada, higiene-jardunbide egokien gida bat (GPCH).

Txikizkako merkataritzako establezimenduei egitea salmentaren zati bat, elikagaien segurtasu-

nari buruzko Europako berariazko araudiak ezarritako baldintzak errespetatuz.

**13. artikulua.** Nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategiek salmenta zuzena egiteko bete beharreko baldintzak.

1. Nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategiak ondoko baldintzak bete beharko ditu gutxienez ere 10. artikuluko lehenengo idatz-zatian jasotzen den salmenta zuzena egiteko:

a) Ekipamenduari eta funtzionamenduari buruzko zenbait baldintza beteko dituzte, araudi indardunari jarraikiz.

b) Ziurtatzea higienearen printzipio orokorrak eta, kasua bada, ekoizten duten produktuaren berariazko irizpide mikrobiologikoak betetzen direla.

c) Abian jartzea arrisku eta kontrol gune erabakigarrien azterketari (APPCC) buruzko sistema bat, edo, kasua bada, higiena-jardunbide egokien gida bat (GPCH).

d) Osasun-erregistroak abalaturako marka izatea.

e) Produktuak Europar Batasunean merkaturatu ahal izatea.

2. Osasun-erregistroa izan behar duen ustiategi bakoitzak eskabide bat eginen du, dagoen ereduaren arabera.

**14. artikulua.** Nekazaritzako ustiategiekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresen erregistroa.

Nekazaritzako ustiategiekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresek, beren ustiategietan sorturiko lehengaiekin egiten dituzten nekazaritzako elikagaiak merkaturatzen badituzte, salmenta zuzenaren bidez edo osasun-erregistroa egiteko salbuetsitako salmentaren bidez, behar bezalako identifikazioa izango dute eta kasuan kasuko ekoizleen erroldan inskribatuta egonen dira, salmenta zuzenaren bidezkoak nahiz osasun-erregistroa egiteko salbuetsitako salmentaren bidezkoak izan.

Nekazaritzako ustiategiekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresak, nekazari-

tzako elikagaiak merkaturatzen badituzte eta osasun-erregistroa badute, Nekazaritzako Elikagai Industrien Erregistroan inskribatuta egonen dira eta eraldatzen duten lehengaiaren ekoizle direla esaten duen bereizgarri bat izanen dute. Bereizgarri horretan adieraziko da, halaber, nekazaritzako ustiategiaren izena.

**15. artikulua.** Praktika egokien gidak.

1. Praktika egokien gidak sortuko dira, Nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategiei lotutako produktuen salmenta zuzenari buruzko Foru Legearen aplikazioari begira.

2. 1. eranskinean zehazten da ustiategi horiek zer jarduera egin ditzaketen.

#### 1. eranskina

1. Fruituen eta barazkien zukuak, marmeladak eta kontserbak egitea.

2. Sagardoa, ardoa, likoreak eta pattarrak egitea.

3. Haragizko produktuak egitea.

4. Esnekiak egitea.

5. Eztia eta deribatuak manipulatu eta egitea.

6. Landare-espezieak manipulatzeko, elikaduran erabiltzeko infusioetarako eta elikaduran erabiltzeko eragile aromatiko gisa.

7. Oliba-olio birjina estra egitea.

8. Arrautzen salmenta.

**Xedapen iragankorra.** Nafarroako Gobernuak, sei hilabeteko epean, erregelamendu bidez arautuko ditu, aplikatzekoa den araudiarekin bat eta, zehazki, Europako 852/2004, 853/2004 Erregelamenduekin eta horiek garatzen dituzten arauekin bat, nekazaritzako elikagaien kalitatearen eta segurtasunaren arloko arriskuak kontrolatzeko sistemak eta gainontzeko araudi aplikagarria, nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategiari lotutako nekazaritzako produktuen salmenta zuzenerako, lege honetan ezarritakoarekin bat.

**Azken xedapena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi hilabetera hartuko du indarra.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Murugarrengo Kontzejuak 2003tik 2008ra bitarte jasotako laguntzei eta dirulaguntzei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Murugarrengo Kontzejuak 2003tik 2008ra bitarte jasotako laguntzei eta dirulaguntzei buruz Comptos Ganberak egindako fiskalizazio txostena argitaratu dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Murugarrengo Kontzejuak 2003tik 2008ra bitarte jasotako laguntzei eta dirulaguntzei buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

Txosten exekutiboa edo laburpena (7. or.).

I. Sarrera (7. or.).

II. Helburua (8. or.).

III. Norainokoa eta mugak (8. or.).

IV. Ondorio orokorrak (9. or.).

V. Obren azterketa (12. or.).

V.I. Untzalingo sakana (2. eta 4. zk.) (12. or.).

V.2. San Kristobalgo sakana. Lankidetzahitzarmena (5. zk.) (14. or.).

V.3. Murubidea bideratzea (10. eta 11. zk.) (15. or.).

V.4. San Kristobalen eta Murubidearen laburpena (17. or.).

V.5. Hornikuntza- eta saneamendu-sareen berrikuntza eta zolaketa (I. fasea)-Toki Azpiegituren Plana (2001-2003), 7/2000

Foru Legea, uztailaren 3koa (7. zk.) (17. or.).

V.6. Hustubidea, hodia eta ur zikinen tratamendua berritzea. (NILSAren dirulaguntza) (12. zk.) (20. or.).

V.7. 2003an larreak hobetzea (larreak sortu eta hobetzeko laguntzei buruzko 192/2001 Foru Dekretuaren arabeko dirulaguntza) (1. zk.) (23. or.).

V.8. 2003ko otsaileko uholdeek eragindako kalteak (Ezohiko laguntzak, uholde ikaragarriek kalte egin dieten titulartasun publikoko nekazaritzako azpiegituren konpontzeko. 2003) (3. zk.) (24. or.).

V.9. Larreak hobetzea lur komunaletan: urmaela eraikitzea eta askak jartzea. (Larre komunaletarako dirulaguntza, 2005 eta 2006) (26. eta 8. zk.) (24. or.).

V.10. Ura larreetaraino eramatea. (99/2006 Foru Agindua, martxoaren 30ekoa, 2006ko ekitaldian tokiko abeltzaintza-azpiegituretarako laguntzen deialdia arautzen duena) (9. zk.) (25. or.).

V.11. Beste alderdi batzuk (26. or.).

Nafarroako Gobernuak behin-behineko txostenari egindako alegazioak (27. or.).

Nafarroako Gobernuak behin-behineko txostenaz aurkeztutako alegazioei emandako erantzuna (29. or.).

Murugarrengo Kontzejuko Lehendakari ohiak behin-behineko txostenari egindako alegazioak (29. or.).

Murugarrengo Kontzejuko Lehendakari ohiak behin-behineko txostenari egindako alegazioei emandako erantzuna (31. or.).

## TXOSTEN EXEKUTIBOA EDO LABURPENA

Izquierda Unida de Navarra – Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak Nafarroako Comptos Ganberari eskatu zion txosten bat egiteko “Nafarroako Gobernuako departamentu guztiek Murugarrengo Kontzejuari 2003. urtetik 2008. urtera bitarte emandako laguntza eta dirulaguntza guztiei” buruz.

Kontzeju hori Deierriko Udalaren barruan dago eta, 2008ko urtarrilaren 1eko eroldaren arabera, 83 biztanle ditu.

Aldi horretan, kontzejuak 17 obra egin ditu — 2,3 milioi euro— eta 1,2 milioi euroko dirulaguntzak jaso ditu. Dirulaguntza horiek Nafarroako Gobernuak eman ditu, Toki Administrazio, Landa Garapen eta Ingurumen departamentuen eta Nilsa enpresa publikoaren bitartez. 2007. urteko Nafarroako aurrekontuetan kontusail izendun bat sartzearen ondorioz, 140.000 euroko dirulaguntza bat sortu da.

Txostenak dio gehiegizko inbertsioa dagoela Murugarrengo Kontzejuan, dituen baliabideekin finantzatu ahal izateko, eta kasu askotan ez direla behar bezala justifikatu inbertsioaren beharrak eta premiak. Era berean, adierazi behar da egindakoa baino obra gehiago ziurtatu dela. Gainera, esaten du akats batzuk izan direla laguntzak ematean eta Nafarroako Gobernuak egiaztatzean Murugarrengo Kontzejuari ordaintzeko jarritako baldintzak betetzen zirela. Geroago, kontzejuak egindako inbertsioa egiaztatzeko txosten teknikoa gauzatu ondoren, Nafarroako Gobernuak itzultze-espedita abiarazi du.

Nafarroako Gobernuari gomendatzen zaio dirulaguntzak eta laguntzak emateko prozedurak, baldintzak eta egiaztapenak berrikusteko; berriz aztertzeko bideragarritasun-ikerketen edukia; eta gogoan izateko toki-erakunde bati laguntzak ematean kontuan hartu behar direla erakundea egiten ari den inbertsio guztiak, haien bideragarritasuna banan-banan aztertu beharrean.

Obra hauengatik prozedura bat hasita dago, eta horretan inputatuta daude kontzejuko eta eraikuntza-enpresako zenbait ordezkari, obren zuzentzailea eta Nafarroako Gobernuako funtzionario bat.

### I. SARRERA

2008ko irailaren 8an egindako bilkuran eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak Nafarroako Comptos Ganberari eskatu zion fiskali-

zazio-txosten bat egiteko “Nafarroako Gobernuako departamentu guztiek Murugarrengo Kontzejuari 2003. urtetik 2008. urtera bitarte emandako laguntza eta dirulaguntza guztiei” buruz.

Lehenago, 2007ko uztailaren 4an, Murugarrengo Kontzejuko korporazio berriaren idazki bat jaso zen Nafarroako Comptos Ganberan; haren bidez, kontuak ikuskatzeko eskatzen zuten. Hilabete horretan bertan, 18an, presidenteak hau jakinarazi zien: “Nafarroako Comptos Ganberak 2007rako duen lan-programa dela eta, ezinezkoa zaigu ekitaldi honetan kasu egitea zuen eskaerari, Erakundeko lantaldeak programa horretan aurreikusitako zenbait lanetan baitihardute”.

Uztailaren 24an kontzejuko presidentearen beste idazki bat iritsi zen; berriz eskatzen zuen auditoria egiteko, eta dokumentazioa gehitu zuen. Aldi berean, bilera bat egin zen Nafarroako Comptos Ganberako idazkariarekin, eta bilera horretan, informazioa aztertuta, kontzejuko ordezkari esan zitzaizkien komeniko zela datuak fiskaltzari jakinaraztea.

Geroago, kontzejuko kideek bilerak izan zituzten Nafarroako Comptos Ganberako, Toki Administrazioako Departamentuko eta Ingurumen Departamentuko ordezkariekin.

Lizarrako lehen instantziako epaitegiak prozedura bat abiarazi du, eta prozedura horretan kontzejuko eta eraikuntza-enpresako zenbait ordezkari, obren zuzendaria eta Nafarroako Gobernuako funtzionario bat daude inputatuta.

Txostena egiteko eskaera 2003-2008 epeko dirulaguntzei dagokie; epe horretan bi udalbatza desberdin egon dira: horietako bat 2003-2007 legegintzaldian; besteak 2007. urteaz geroztik.

Murugarrengo Kontzejua Deierriko Udalaren barruan dago (Lizarrako Merindadean) eta, 2008ko urtarrilaren 1eko eroldaren arabera, 83 biztanle ditu.

Lana urtarriletik apirilera bitartean egin du auditore batek eta auditoriako bi teknikarik osatutako talde batek. Era berean, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dugu.

Txostenak bost atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren eta hirugarren ataletan txostenaren helburua, norainokoa eta mugak azaltzen ditugu. Lau garren atalean, lanean oinarritutako ondorioak eta gomendioak aurkezten dira, eta azkenean, bosgarrenean, kontzejuak egin eta dirulaguntza izan duten obren azalpen eta azterketa labur bat egiten da. Gainera, 2009ko apirilean egindako argazki

batzuk gehitu dira, txostenean adierazitakoa ulertzen laguntzeko.

Eskerrak ematen dizkiegu Murugarrengo Kontzejuko ordezkariari eta Nafarroako Gobernuak langileei, bereziki Landa Garapen eta Ingurumen Departamentukoari eta Toki Administrazioari, hala nola Nafarroako Toki Azpiegituren enpresa publikoari (NILSA) lan hau egiteko emandako laguntzatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, eta parlamentuak egindako eskaera kontuan hartuta, Nafarroako Gobernuak Murugarrengo Kontzejuari 2003. urtetik 2008. urtera bitarte emandako laguntzen eta dirulaguntzen fiskalizazioa egin dugu.

Lana egitean, beharrezkoa izan da kontzejua jarduera egiaztatzea, hark gauzatzen baitzuten dirulaguntzen xede ziren obrak.

Horregatik, txostenaren helburua hau dela esan dezakegu:

- Kontzejuak jasotako laguntzen zenbatekoa zehaztea.
- Nafarroako Gobernuak laguntzak ematen eta kontrolatzen egindako kudeaketa aztertzea.
- Dirulaguntzen xede diren obrak gauzatzean kontzejuak egindako kudeaketa aztertzea.

## III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Finkaturiko helburuak aintzat harturik, gure lanaren norainokoa hau izan da, nagusiki:

- Nafarroako Gobernuak departamentuetatik jasotzea Murugarrengo Kontzejuari aztertutako epean emandako dirulaguntzei buruzko informazioa.
- Espediente horiei buruz dagoen dokumentazioa aztertzea.
- Kontzejuak, Comptos Ganbera honek eskatuta, aztertutako obrei buruz eman ahal izan zigan dokumentazioa berriz aztertzea.

- NILSA enpresak, Ganbera honek eskatuta, diruz lagundu duen obrari buruz eman zigan dokumentazioa aztertzea.

- Kontzejuak 2006. eta 2007. urteetan izandako kontabilitatea aztertzea, bereziki egindako inbertsioei eta haien finantzaketari lotutako guztiaren kontabilizazioari dagokienez, bai eta kontzejuak Nafarroako Gobernuari bidalitako aurrekontu-datuak aztertzea ere.

- Kontzejuko ia obra guztiak egin dituen kontratistari eta obra-zuzendariari zirkularrak bidaltzea.

- Gainera, informazioa lortu dugu Nafarroako Kontseiluan dagoen espediente batetik; izan ere, espediente horren ondorio izan zen aztertutako kontratuetako bat ebazteko irizpena.

Lana egin bitartean, lantaldea kontzejura joan zen, bisita egin eta obrak zer egoeratan zeuden ikusteko.

Honako hauek jarri dizkiote mugak gure lanari:

- Erabili dugun dokumentazioa ez zegoen beti osorik.
- Kasu jakin batzuetan dokumentazioa nahasgarria da eta barreiatuta aurkitu dugu. Horren adierazgarri, zenbait proiektu edo aurrekontu daude obra bererako; beti ez daude ikus-onetsita; eta eskabideetako batzuek ez dute erregistroaren zigorik. Era berean, batzuetan proiektua bera falta da.

- Eskuratu ahal izan dugun kontzejuaren 2006. eta 2007. urteetako kontabilitatean akatsak daude egozte-irizpideetan eta, 2007koan, jaso gabe zeuden aurreko urteetako eragiketak erregistratu dira.

- Aztertu ditugun banku-laburpenetan egun berean egindako zenbateko bereko zordunketa-eta ordainketa-mugimenduak daude, baina ez dago haiek azalduko dituen egiaztagiririk.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko Sektore Publikoko Auditoria Printzipioei eta Arauei jarraituz, zeinak Comptos Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatu baititu.



**IV. ONDORIO OROKORRAK**

III. atalean adierazitako mugak kontuan hartuta, Comptos Ganbera honek egindako lanetik ondorio orokor hauek ateratzen dira:

**A) DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOARI BURUZ.**

1) Murugarrengo Kontzejuak, 2003. urtetik, taula honetan agertzen diren obrak egin ditu, bai eta horietarako dirulaguntzak jaso ere.

2003-2007 epea	Ziurtatutakoa	Dirulaguntza
Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako obrak	1.620.928	1.020.804
NILSAk * diruz lagundutako obrak	244.967	180.894
Nafarroako Gobernuak diruz lagundu gabeko obrak	466.685	**45.000
<b>Guztira</b>	<b>2.332.580</b>	<b>1.246.698</b>

\* NILSAk obraren ehuneko ehun laguntzen du diruz, baina kontzejuak, adjudikazio berean, beste obra batzuk bere kontura egitea erabaki zuen.

\*\*Lizarrerriko Landa Garapenerako Zentroa (TEDER)

Obra horiek honela daude banakatuta urteko eta kontzeptu bakoitzeko.

		Murugarrengo Kontzejuak 2003-2007an egindako obraren zerrenda									
Urtea	Diruz lagundu duen departamentua	Dirulaguntzaren kontzeptua	Obraren kontzeptua	Dirulaguntza		Ziurtagiria		Dirulaguntzaren zenbatekoa			
				Obra	Lansariak	Obra	Lansariak	Obra	Lansariak		
1	2003	Landa-garapena	Larneak hobetzea herri-basoetan	Alambre metalikoak ixtea, ura eramatea eta askak	47.828,80	0,00	47.831,24	0,00	28.697,28		
2	2003	Ingunumena	Ibatak hobetzea eta obra hidraulikoak	Uztzalingo sakana bideratzea	76.776,49	10.897,90	76.865,86	10.897,90	60.449,00		
3	2003	Landa-garapena	Nekazaritza-azpiegituratan izandako kalteak konpontzea	2003ko otsaleko uholde ikaragarniek eragindako kalteak	9.221,37	0,00	9.221,37	0	9.221,37		
4	2004	Ingunumena	Ibatak hobetzea eta obra hidraulikoak	Uztzalingo sakana bideratzea	76.776,49	10.897,90	76.772,52	10.897,90	61.369,00		
5	2005	Ingunumena	Ibatak hobetzea eta obra hidraulikoak	San Kristobalago sakana egokitztea	INF. EZ	INF. EZ	214.210,10	12.016,25	158.356,00		
6	2005	Landa-garapena	Bazkalekuak hobetzea herri-basoetan	Urmaelak erakitztea eta askak jartzea	17.156,19	0,00	17.223,97	0,00	10.293,71		
7	2005	Administrazioa, Tokikoa	Tokiko azpiegituren 2001-2003 adirako plana.	Sareen eta homikuntzaren berrikuntza; 1. fasea	374.743,12	20.434,41	368.474,79	19.612,26	169.973,37		
8	2006	Landa-garapena	Bazkalekuak hobetzea herri-basoetan	Urmaelak erakitztea eta askak jartzea	17.156,19	0,00	14.996,87	0,00	8.998,12		
9	2006	Landa-garapena	Bazkalekuetan abelazkuntza-egiturak hobetzea	Ura eramatea El Encinar urmaeletik "El Prado" eta "Domingulloko" herri-basoetaraino	284.153,1	1.714,64	19.683,68	1.413,63	8.438,92		
10	2006	Ingunumena	Ibatak hobetzea eta obra hidraulikoak	Murubideko behe-ibarra bideratzea	492.621,64	28.817,35	492.621,64	28.817,35	365.007,29		
11	2007	Ingunumena	Murubideko behe-ibarra bideratzea	Lan osagarriak behe-ibarra bideratzeko	189.332,15	10.038,94	189.332,15	10.038,94	140.000,00		
				<b>BATURA</b>	<b>1.330.027,75</b>	<b>82.801,14</b>	<b>1.572.234,19</b>	<b>93.694,23</b>	<b>1.020.804,06</b>		
				<b>Nafarroako Gobernua diruz lagundutako obraren eta lansarien guztirako partziala</b>	<b>1.412.828,89</b>		<b>1.620.928,42</b>		<b>1.020.804,06</b>		
12	2005	Nilisa	Sareak bermitzea eta saneamendua	Ur-zikinen surbidea eta arazketa	211.169,47	23.886,79	215.592,71	29.374,78	180.893,76		
13	2003	Dirulaguntzarik gabe	Nafarroako Gobernua	<b>NILSAK diruz lagundutako obraren eta lansarien guztirako partziala</b>	<b>2.183,87</b>	<b>235.056,26</b>	<b>244.967,49</b>		<b>180.893,76</b>		
14	2004	Dirulaguntzarik gabe	Nafarroako Gobernua	Azpiegiturak mantentzea eta konpontzea	2.183,87				0,00		
15	2005	Dirulaguntzarik gabe	Nafarroako Gobernua	Baso-jarduerak	5.923,89				0,00		
				Goi-presioko ur-homidura berritzea	258.962,39		258.962,39	4.769,18	0,00		
16	2005	Dirulaguntzarik gabe	Nafarroako Gobernua	Goi-presioko ur-homidurari lotutako afekzioak			5.271,97				
				Erdi Aroko asfaltiko iturra berritzea*	76.213,46		82.426,67	7.925,14	45.000,00		
17	2007	Dirulaguntzarik gabe	Nafarroako Gobernua	Homidura-, saneamendu- eta zoladura-sareen berrikuntza: San Roman k/ eta Murubidea	92.714,06		99.771,44	7.558,60	0,00		
				<b>BATURA</b>	<b>435.997,67</b>		<b>446.432,47</b>	<b>20.252,92</b>	<b>45.000,00</b>		
				<b>Nafarroako Gobernua dirulaguntzarik gabeko obraren eta lansarien guztirako partziala</b>			<b>466.685,39</b>		<b>1.246.697,82</b>		
				<b>GUZTIZKO OROKORRA</b>			<b>2.332.581,30</b>		<b>1.246.697,82</b>		

\*Lizamiriko Landa Garapeneko Zentroaren (TEDERen) dirulaguntza  
Lansariak: 0,00 proiektua landa-garapenerako departamentuak berak egiten badu.

**B) NAFARROAKO GOBERNUAREN KUDEA-KETAZ**

2) Nafarroako Gobernuak laguntzak eman dizkio Murugarrengo Kontzejuari 2003-2007 aldian, Toki Administrazio eta Landa Garapen eta Ingurumen departamentuen bitartez. Kontzejuak, halaber, NILSA enpresa publikoak diruz lagundutako obra bat egin du. Interesekoa da azpimarratzea kontzejuak jasotako dirulaguntzetako bat (140.000 euro) 2007. urteko Nafarroako aurrekontuetan kontusail izendun bat sartzearen ondorioz sortu dela.

3) Akatsak ikusi ditugu espedienteetako dokumentazioan, eta egiaztatu ahal izango dugu hauekin dutela zerikusia nagusiki: proiektu batzuk faltatzearekin; proiektu bererako zenbait aurrekontu izatearekin; eta eskabide batzuek sarrerako errejestroaren zigilurik ez edukitzearekin.

4) Beti ez da behar bezala justifikatzen obren beharra eta premia.

5) Obretako batzuetan, geroago egiaztatu ahal izan den ehuneko txikian, argi ikusi da kontzejuak benetan egindakoa baino obra gehiago ziurtatu duela eta, kasu batzuetan, hau adierazten da dirulaguntzak ordaindu aurreko txostenean: "... obra ikuskatu edo bisitatuta, bai eta berrikusita ere, badagokio hura ordaintzea."

6) Ez dira aztertu kontzejuak aldi honetan egindako obra guztiak, ez eman beharreko laguntzak zehaztean, ez haren finantza-gaitasuna kontuan hartzean.

7) Bideragarritasun-azterketak egitea derrigorrezkoa izan denean, horiek egokiro egin dira ikuspuntu teknikitik eta, batzuetan, inbertsio-proiektuak baztertu egin dira bideraezinak izateagatik.

Hala ere, honako alderdi hauek ikusi ditugu:

- Batzuetan, kontu zaharretako datuak erabiltzen dira ikerketak egitean, azken urtekoak onartu gabe baitaude. Horri dagokionez, esan behar da batzuetan laguntzei buruzko araudiak berak behartzen zuela horrela jokatzera. Adibidez, 2001-2003ko Toki Azpiegituren Planak aurreikusten zuen ekarpenen ehunekoak kalkulatzeko 1999. urteko kontuetan oinarritzea.

- Proiektu bat ez bada bideragarria, kontzejuak zuzen dezake, dela fasetan zatituz (horrela inbertsioa txikiagoa baita), dela finantzaketa propioa erabiliz lursailen salmentaren bidez (ez baitira identifikatzen, eta ez baita egiaztatzen hura egin dela).

- Hain biztanle gutxiko eta aurrekontu txikiko entitate horretan, ez dira kontuan hartu obra guztiak bideragarritasun-ikerketak egiteko.

8) Aipatutako guztiak ikusita, Ingurumen Departamentuak txosten tekniko bat egin zuen 2008ko apirilean Murugarrenen 2003. eta 2007. urteen artean egindako obren exekuzioari buruz eta, Ingurumeneko zuzendari nagusiak 2008ko urriaren 13an hartutako ebazpenari jarraiki, 84.215 euro ordaintzeko eskatu zuen (printzipala gehi interesak), Murugarrengo Kontzejuari emandako dirulaguntzengatik itzultze moduan (ziurtatutakoak egindakoak baino gehiago izatearen ondorioz).

**C) KONTZEJUAREN KUDEAKETAZ**

9) Obra gehienak presako prozedura bidez esleitzen dira, hura dokumentatu gabe, eta proiektuaren adjudikazioa nahiz obra- eta haren gauzate-zuzendaritza pertsona berei dagokie.

10) Ikusi da obra batzuetan kontusail batzuk guztiz gauzatu gabe gelditzen direla.

11) Egiaztatu ahal izan da egin gabeko obra ziurtatu dela, eta kointzidentzia handia ikusi da aurrekontuetan aurreikusitako guztizko zenbatekoen eta ziurtatutako obraren artean. Hala ere, desberdintasunak ikusten dira aurrekontu-kontusailen, eta ez dugu aurkitu desbideratze partzialak justifikatzen dituen inolako txostenik.

12) Kontzejuko egungo arduradunek zalantza dute obra batzuen premiaz edo haien tamainaz.

13) Egun eta ordu berean zenbateko bereko zordunketak eta ordainketak egin direla ikusi da, eta badirudi haien helburua obraren ordainketa justifikatzea izan dela, ordainketa hori dirulaguntzak jasotzeko baldintza izan denean.

14) Egindako zirkularizazioari emandako erantzunaren arabera, eraikitzaile nagusiak adierazten du bere aldeko 922.528,12 euroko zorra dagoela; kopuru horretatik, 901.578,52 euro ordaindu gabe dauden ziurtagiriei dagozkie, eta 20.949,60 euro erabili gabeko galtzada-harrien bilketari. Zenbateko hori egiaztatzen bada, arriskuan jar daiteke kontzejuaren bideragarritasun ekonomikoa.

15) Kontzejuak gehiegizko inbertsioa egin du zeuzkan baliabideak kontuan hartuta; izan ere, diruz lagundutako obrez gain, beste batzuk egin ditu dirulaguntzarik izan gabe (ikus IV.A.2. ondorioen taula) Proiektu horietako batzuei dagokienez, aurreikusita zegoen haiek lursailak salduta lortutako sarreraren bidez edo kredituen bidez finantzatzea, baina gure lanean ezin izan dugu baieztatu eragiketa horiek egin direnik.

Gure lanaren laburpen gisa, hau adierazten dugu:

- Gehiegizko inbertsioa dago Murugarrenko Kontzejuan, dituen baliabideekin finantzatu ahal izateko, eta kasu askotan ez dira behar bezala justifikatu inbertsioaren beharra eta premia. Era berean, adierazi behar da egindakoa baino obra gehiago ziurtatu dela.

- Akats batzuk izan dira Nafarroako Gobernuak laguntzak ematean eta egiaztatzean Murugarrenko Kontzejuari laguntzak ordaintzeko jarritako baldintzak benetan betetzen zirela. Geroago, kontzejuak egindako inbertsioa egiaztatzeko txosten teknikoa gauzatu ondoren, Nafarroako Gobernuak itzultze-espeditatea abiarazi du.

Horregatik guztiagatik, hau gomendatzen diogu Nafarroako Gobernuari:

*\* Dirulaguntzak eta laguntzak emateko prozedurak, baldintzak eta frogaketak berriz aztertzea.*

*Berraztertze-prozesu horretan, funtsezkotzat jotzen dugu Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Esku-hartze Zerbitzuak parte hartzea.*

*\* Bideragarritasun-ikerketen edukia aztertzea, alderdi hauek kontuan hartuta: zer urte erabiltzen den ikerketak egiteko; zer irizpide izan behar diren bideragarria ez den proiektu bat zatitzen denean; eta proposatutako finantzaketaren jarraipena.*

*\* Toki-erakunde bati laguntzak ematean, kontuan hartu behar dira erakunde hori egiten ari den inbertsio guztiak, haien bideragarritasuna banan-banan aztertu beharrean.*

## V. OBREN AZTERKETA

Orain, Nafarroako Gobernuak eta NILSA enpresa publikoak diruz lagundutako Murugarrenko Kontzejuaren lanetan eragina duten egitate nagusiak deskribatuko eta aztertuko ditugu.

Obrei buruzko iruzkinak dirulaguntza ematen zuen organoaren arabera multzokatu dira, eta zenbaki bat jarri zaie, txosten honetako II. ataleko obren taularekin identifikatzeko.

## A) INGURUMEN DEPARTAMENTUAREN LAGUNTZAK

### V.I. UNTZALINGO SAKANA (2. eta 4. zk.)

Bi fasetan egindako lana da (2003an eta 2004an), eta bi faseetan, guztira, 175.434 euro ziurtatu dira, eta 121.818 euroko dirulaguntza bat eman da.

Hona hemen obraren helburua: "Untzalin sakanaren gaineko nekazaritza-igarobide bat berritzea, hondatuta baitzegoen; ubide nagusiko eta adarretako landaredia garbitzea, ura errazago ateratzeko; eta sakaneko ertzak babestea, harri-lubetak ezarri."

Eskuratu ahal izan dugun dokumentazioa nahasgarria da. Hala, ikusi dugu hasierako proiektuak Baso Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofizialak 2002ko otsailaren 13an ikus-onetsitako bi aurrekontu dituela; baten guztizko zenbatekoa 262.715 eurokoa da, eta bestearena 210.784 eurokoa.

Dirulaguntza jasotzeko lehen eskaera 2002an egin zen, eta aurrekontua, guztira, 262.715 eurokoa izan zen. 2002ko urtarrilean, hidrologia-sailaren buruak hau adierazi zuen bere txostenean: "... obra neurritz gain dimentsionatuta dago, bai hidraulikoki, bai ekonomikoki, eta irtenbide merkeagoak bila daitezke".

Kontzejuak, 2003ko otsailaren 17ko eskabide baten bidez, hau eskatu zuen: "... aipatu obrak egiteko beharrezko laguntzak ematea, Untzalingo sakana bideratzeko proiektuaren 1. fasearen barruan, premia handikoa baita. Adierazi behar da aipatu obraren proiektua bi alditan banatu dela".

Aldi horiei, guztira, 181.043 euro dagozkie.

Badago datarik eta sinadurarik gabeko orri bat, zenbatekoa aldatzen duena, 175.349 euroraino jaisten baitu. Horren arabera, aldi bakoitzari 87.674 euro dagozkio.

Bideragarritasun-txostena Toki Administrazio Departamentuak egin zuen 2003ko urtarrilaren 6an, eta, horretarako, 1997-2001 epeko kontuak aztertu ziren, 210.784 euroko aurrekontua oinarritzat hartuta.

Taula honetan, proiektu horien guztien laburpena aurkezten da:

	2002ko aurrekontua	2002ko aurrekontua 2. bertsioa	2003ko eskaera	2003ko eskaera zuzendua
Kontratuaren aurrekontua	240.919	188.988	159.247	153.553
Lansariak	21.796	21.796	21.796	21.796
	<b>262.715</b>	<b>210784</b>	<b>181.043</b>	<b>175.349</b>

Obra bi alditan gauzatu zen 2003an eta 2004an, eta haietarako dirulaguntza eskatu eta lortu zen.

Taula honetan egintza nagusien laburpena ageri da:

	1. fasea		2. fasea	
	2003ko data	Zenbatekoa	2004ko data	Zenbatekoa
Dirulaguntza ematea	2003-04-04	61.372	2004-06-04	61.372
Obraren adjudikazioa	2003-09-25	90.521	2004-08-23	87.674
Obraren hasiera	2003-10-07	-	2004-09-21	-
Amaiera	2003-11-21	87.764	2004-11-21	87.670
Dirulaguntza ordaintzeko erabakia	2003-12-31	60.449	2004-12-24	61.369

#### V.I.I. 1. FASEA. Deialdia, 2003. urterako. 1842/2002 Foru Agindua, 02-11-25ekoa (2. zk.)

Kontzeju Batzarrak 03-09-25ean egindako bileran erabaki hau hartu zuen: "... oso presazkotzat jotzea 'Murugarrengo Untzalin sakana bideratzea. 1. fasea' egiteko obrak; lan horiek egiteko ardura esleitzea 79.623,68 euroan; eta pertsona bat obra-zuzendari izendatzea, proiektu eta obra-zuzendaritzarako 10.897,90 euroko gastua duela".

Deialdiko oinarrien arabera, esleipen edo adjudikazioa dirulaguntza emanen zela jakinarazi ondoko hiru hilabeteko epean egin behar zen; epe hori 2003ko uztailearen 9an amaitu zen.

Obra-bukaerako ziurtagiria 76.865,86 eurokoa da obrari dagokionez, eta 10.897,90ekoa zuzendaritzaren kasuan; hortaz, 87.763,76 euro dira guztira.

2003ko azaroaren 21ean, honako hauek aurkeztu ziren Nafarroako Gobernuan: obraren eta obra-zuzendaritzaren adjudikazioaren ziurtagiria; zuinketaren egiaztapen-akta; obra-bukaerako ziurtagiria; obraren eta obra-zuzendaritzaren fakturak; eta obraren amaierako akta.

2003ko abenduaren 15ean, Ingurumen Departamentuko ingurumenaren ebaluazio- eta lehengoratzeko saileko buruak txosten bat eman zuen, honako hau jasotzen zuena: "... obraren lekua bisitatu eta aurkeztutako behin-behineko likidazioa aztertu ondoren, zuzentzat jo da; horregatik, bidezkoa da emandako dirulaguntza ordaintzea".

#### V.I.2. 2. FASEA. Deialdia, 2004. urterako 132/2004 Foru Agindua, 04-02-11koa (4. zk.)

Bigarren faserako eskaera 2003ko abenduan aurkeztu zen, deialdia argitaratu baino lehen (2004ko otsailaren 11ko Foru Agindua), eta hartan adierazi zuten 1842/2002 Foru Aginduko deialdira atxiki nahi zutela 2. fasea, edo haren ordezkioa izango denari, obra oso premia handikoa baitzen; gainera, esan zuten proiektua Departamentuaren eskuetan zegoela, obrak bi alditan egitekoak baitziren.

2004ko martxoaren 24an, ingurumenaren ebaluazio- eta lehengoratzeko saileko buruaren txosten batean hau esaten zen: "Teknikari aditu batek sinatutako proiektu bat idatzi beharko da, eta proiektu horrek jardueren azterketa zehatza (hasierako eta amaierako egoerak), ikerketa hidrologikoa eta abar jaso beharko ditu eta Ingurumen Departamentuaren alde aurreko ingurumen-baimena izan beharko du; gainera, Ingurumen Afekzioen Azterketa nahiz atzemandako afekzioak zuzentzeko eta/edo konpentsatzeko zuzenketa-neurriak aurkeztu beharko dira.

Era berean, baimena eskatu beharko dio Ebroko Konfederazio Hidrografikoari".

2004ko irailaren 13an, Konfederazioak 2003ko apirilaren 28an emandako baimenaren kopia bat aurkeztu zen erregistroan, bai eta kontzejuak obrak adjudikatzeko eta obraren zuzendaritza izendatzeko hartutako akordioaren ziurtagiria ere.

Azken hori 2004ko abuztuaren 23ko bilkuran egin zen, presako prozeduraren bidez, eta esleipendun beren alde egin zen, lehen aldian gertatu bezala.

Aurretik, 2004ko martxoaren 30ean, Toki Administrazio Departamentuak bigarren aldi honen bideragarritasun-txostena egina zuen, 2002. urteko kontuetan oinarrituta.

2004ko abenduaren 7an, eskabide bat aurkeztu zen Nafarroako Gobernuan honako hauekin batera: zuinetaren egiaztapen-aktaren kopia; obren egiaztagiria, faktura eta ordainagiria; obrazuzendaritzaren faktura eta ordainagiria; eta obren amaiera-ziurtagiria.

2004ko abenduaren 14an, ingurumenaren ebaluazio- eta lehengoratzeko saileko buruak lehen aldiko egindakoaren antzeko txosten bat egin zuen, eta dirulaguntzaren ordainketa baimendu.

Geroago, aurkeztutako salaketak zirela eta, txosten bat egin zen obrei buruz, eta txosten horretatik ondorioztatu zen obraren ehuneko 87 ez zela neurgarria, lurpean edo estalita egoteagatik, ehuneko zortzi zuzena zela eta ehuneko lau gauzatu gabe zegoela. Kontusail hori zubi gaineko barandari dagokio, baina ez da jarri. Horren zenbatekoa 6.540 eurokoa da.

Hitz gutxitan, esan dezakegu obra bakar bat zenbait aurrekonturekin aurkeztu zela, ez dugula

proiektu berririk aurkitu, obra hori bi alditan banatu zela eta bi aldi horiek emergentziaz adjudikatu zirela bi urte desberdinetan.

Obren exekuzioa ez da behar bezala kontrolatu; izan ere, egiazta zitekeen zati txiki-txikian gauzatu gabeko kontusailak daudela ikusi da.

## V.2. SAN KRISTOBALGO SAKANA. LANKIDETZA-HITZARMENA (5. zk.)

Espedientea 2005eko urtarrilaren 27ko eskabide batek abiarazi zuen eta, hartan, Murugarrengo Kontzejuak hau eskatu zuen: "... San Kristobalگو sakana egokitzeko proiektuko obrak gauzatzeari dagozkion laguntzak ematea, egokitze horrek oso premia handia baitu. Aurrekontua, Administrazioak jakin dezan, 474.317 eurokoa da."

Herri Lan Departamentuak ez zuen onartu obra horren ibilbidea, ez baitzetorren bat Nafarroako Errepideak babesteko 11/86 Foru Legean erabakitakoarekin, 2005eko otsailaren 23ko txostenen adierazten denaren arabera.

Errealitatean, obra hori bi proiektuk ordeztu zuten: alde batetik, San Kristobalگو Sakana izenekoak; bestetik, Murubidea bideratzea zeritzonak.

San Kristobalگو sakaneko obrari dagozkion egitate nagusien laburpena ageri da taula honetan:

	Data	Zenbatekoa
Dirulaguntza ematea*	2005-05-05	158.356
Obraren adjudikazioa	2005-10-10	226.222
Obraren hasiera**	2005-11-25	-
Amaiera	2005-12-14	226.226
Dirulaguntza ordaintzeko erabakia	2006-01-13	158.356

\*Lankidetzaren hitzarmena sinatu zen eguna.

\*\*Zuinetaren egiaztapen-aktaren data.

Egiaztatu dugu ingurumenaren integrazio-zerbitzuaren proposamen bat dagoela, 2005eko otsailaren 9koa; ez dago sinatuta, baina Nafarroako Gobernuaren eta Murugarrengo Kontzejuaren artean San Kristobalگو sakana egokitzeko lankidetzaren hitzarmen bat egiteari buruzkoa da. Hau da horretarako arrazoia: "Murugarrengo Kontzejuaren hirigunearen kokapena dela eta (uretan gora dauden zenbait ibarbidetako isurpen-arroan dago), jariatze-urek eragin zuzena dute hiriguneko eraikinetan eta Iruñea eta Lizarra arteko NA-700 errepidean bertan, eta arriskua dago herritarrentzat, bai eta haietarako sarbideetan ere"

Obrak 226.222 euroko aurrekontua dauka kalkulatu, eta dirulaguntza 158.356 eurokoa izango da, baina ez dugu aurkitu proiektua gauzatu.

2005eko otsailaren 23ko eskabidearekin batera, kontzejuak obraren bideragarritasunari buruzko informazioa gehitu zuen, 226.222 euroko aurrekontuarekin zerikusia zuena.

2005eko martxoaren 10ean, aldeko irizpena eman zuten ingurumenaren ikuspuntutik.

Bideragarritasun ekonomikoari dagokionez, Toki Administrazio Departamentuak egindako txostenak (2005eko martxoaren 10ekoa), hasieran, ezezkia eman zien obrei, ez zirelako bideragarriak aurrekontua 474.317 eurokoa izanda.

2005eko apirilaren 2an, kontzejuak beste bide-ragarritasun-txosten bat eskatu zuen San Kristobalگو sakana egokitzeko lehen aldirako (226.222 euroko aurrekontua eta 158.356 euroko dirulaguntza), eta adierazi zuen bazeuzkala funts propioak aldeari aurre egiteko, eta beharrezko izatera, hirilurreko 996 m2 salduko lituzkeela, 68.684 euroko guztizko balioan.

Azkenean, Toki Administrazio Departamentuak aldeko bideragarritasun-txostena egin zuen 2005eko apirilaren 19an, 2003. urteko kontuetan oinarrituta.

2005eko apirilaren 26an, Ingurumeneko kontseilariaren foru agindu baten bidez, lankidetzahitzarmenaren testua onartu zen, eta 158.356 euroko gastua baimendu.

Hitzarmen hori 2005eko maiatzaren 5ean sinatu zuten; Hitzarmenak zioen obrak 2005. urtearen barruan egin behar zirela.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak aldeko irizpena eman zuen 2005eko irailaren 20an.

Kontzeju-batzarrak oso presazkotzat jo zituen obrak 2005eko urriaren 10ean egindako bilkuran, eta obrak nori esleitu eta nork zuzendu erabaki zuen.

Zuinketaren egiaztapen-akta 2005eko azaroaren 25ekoa da, eta obrak 2005eko abenduaren 14an jaso ziren.

2005eko abenduaren 16ko bi banku-egiaztajiri daude, eraikitzaileari eta obra-zuzendariari egindako bi transferentziari dagozkienak; guztira 226.226,35 euro dira.

Obren exekuzioarekin zerikusia zuen dokumentazio hori guztia eskabide orokor bati erantsi zitzaion, baina eskabideak ez du ez zigilurik ez aurkezpen-datarik.

Ingurumenaren ebaluazio- eta lehengoratzesaileko buruak 2005eko abenduaren 19an egindako txosten batean hau jasotzen zen: "... obra amaitu eta amaiera hori ikuskatu ondoren eta, era berean, behin-behineko likidazioa aztertu ondoren, ondorioztatu da obrak eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela, eta 158.356 euro ordaintzea proposatzen da".

Ingurumen Departamentuko teknikariek txosten bat egin zuten 2008ko apirilaren 18an Ur Zerbitzuko zuzendariak eskatuta, 2003.-2007. urteetan Murugarrenen egindako proiektuetan zer obra-unitate ez ziren gauzatu egiaztatu eta kuantifikatzeko. Txosten horretatik ondorioztatzen da unitateen ehuneko 24 (unitateak neurgarriak izateagatik) baino ezin dela egiaztatu, eta ehuneko horretatik ehuneko 52 ez da gauzatu; egin gabeko zatia, guztira, 26.158 eurokoa da.

V.3. MURUBIDEA BIDERATZEA (10. eta 11. zk.)

VI.2. atalean adierazi bezala, obra honek, San Kristobalگو sakanekoarekin batera, San Kristobalگو sakana egokitzeko lehen proiektua ordeztu zuen errealtatean, lehendabiziko hura Herri Lan Departamentuak baztertu egin baitzuen.

Murubideko obra hori bi alditan egitekoa zen. Lehendabizikoa 2006ko dirulaguntzen deialdiari atxiki zitzaion, eta bigarrenak dirulaguntza izendun bat dauka, Parlamentuak 2007ko aurrekontuetan sartua.

**V.3.I. Murubidea 1. fasea. 116/2006 Foru Aginduaren bidez egindako deialdia, 06-04-07koa, 2006. urterako (10 zk.)**

Taula honetan, Murubidea bideratzeko obraren lehen faseari dagozkion egitate nagusien laburpena ageri da:

	Data	Zenbatekoa
Dirulaguntza ematea	2006-06-22	365.007
Obraren adjudikazioa	2006-09-27	521.439
Hasiera**	2006-10-02	-
Amaiera	2006-11-29	521.439
Dirulaguntza ordaintzeko erabakia	2006-12-23	365.007

\*\*Zuinketaren egiaztapen-aktaren data.

2006ko maiatzaren 8an erregistroan aurkeztutako eskabide batean, "haren premia dela eta, ahalik eta laguntza handiena eskatzen da," Murubideko ibarra bideratzeko obrak egiteko; obra horiek abendua baino lehen egitekoak ziren. Harekin batera, ikusi eta onetsitako proiektuaren ale bat zegoen, eta proiektuari 521.439 euroko zenbatekoa zegokion, lansariak barne.

2006ko ekainaren 22ko 1526 ebazpenaren bidez, deialdiari buruzko erabakia hartu zen: Murugarreni eta beste bi herriri dirulaguntzak eman zitzaizkien, baina ukatu egin zitzaizkien beste bost entitateri, baldintzak bete arren, haien aurrekontua ez zelako nahikoa; gainera, beste 12 herriren proiektuak onartu gabe gelditu ziren.

Zegoen arriskuagatik eta obrei ekitea premiazkoa zelako eman ziren laguntzak, baina txostentan generikoki aipatzen dira, haiek azaltzeko eta justifikatzeko datuak zehaztu gabe.

2006ko urriaren 6ko eskabide batean, deialdian eskatutako dokumentazioa aurkeztu zen:

- Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren baime-na; San Kristobalگو sakana egokitze 2005eko irailaren 20an aurkeztu zen bera da.

- Kontzejuaren ziurtagiri bat, honako hauek jasotzen zituena: 2006ko irailaren 27an egindako bilkuran proiektua onartu zuela; obrak oso presazkotzat jo zituela; eta obrak nahiz obren zuzendaritza 521.439 euroko gutzizko zenbatekoan esleitu zituela.

- Ingurumen-txosten bat.

Espedientean abenduaren 15eko eta erregistroaren zigorrik gabeko eskabide bat dago; horretan, emandako laguntzak ordaintzeko eskatzen da, eta hauek aurkezten dira:

- Zuinetaren egiaztapen-akta, 2006ko urriaren 2koa.

- Obren amaierako ziurtagiria, 2006ko azaroaren 29koa.

- Obren jasotze-akta, 2006ko abenduaren 14koa.

- Fakturak eta ordainketa-transferentzien kopia: 521.439 euro.

Ordainketa justifikatu horiek banku-sarrera eta -irteera dituzte egun berean, eta geroago, horien zati bat ordaindu zen.

2006ko abenduaren 18an, ingurumenaren ebaluazio- eta lehengoratzeko saileko buruak txosten bat eman zuen, honako hau jasotzen zuena: "... obren lekua bisitatu eta behin-behineko likidazioa

aztertu ondoren, zuzentzat jo da; horregatik, bada-gokio emandako dirulaguntza ordaintzea (365.007 euro):"

Egiaztatu dugu "Murugarrengo Murubideko ibarra bideratzeko proiektua (2. FASEA), 2005-2006koa" delakoaz baso-ingeniari tekniko batek 06-01-31n sinatutako ingurumen-txosten bat dagoela, 647.138,34 euroko aurrekontu bat aipatzen duena: "... oso kopuru handia, are hasierako aurrekontua baino handiagoa ere, nahiz eta aurrekontu horretan batera jaso I. eta II. faseak"

Txostenean esaten da ibilbidea Herri Lan Departamentuak eskatuta aldatu dela, eta horren ondorioz obraren luzera handitu egin dela, eta zaildu hura gauzatzea, aldaketak eragina baitu hiriguneko zenbait zerbitzutan.

Obra honetan ez dago Toki Administrazio Departamentuak bideragarritasun ekonomikoaz egindako txostenik, ez baita derrigorrezkoa dirulaguntzei buruzko lege berriaren arabera.

### **V.3.2. Murubidea handitzea. 2007ko aurrekontuetako kontusail izenduna (11. zk.)**

Laguntza hau ez dagokio ezin plan edo deialdi orokorri; aitzitik, Parlamentuak berak 2007ko aurrekontuetan kontusail izendun bat esleitzearen ondorioz gertatu da.

Erregistro-zigorrik gabeko eskabide batean, laguntzak eskatzen dira Murubideko ibarraren bideratzea handitzeko.

2007ko urtarrilaren 11n, ingurumenaren ebaluazio- eta lehengoratzeko saileko buruak txosten bat egin zuen eta, horretan, kontzejuak 2007ko urtarrilaren 11n egindako eskaeraren arabera, aurrekontuetan kontusail izendun gisa aurreikusitako 140.000 euroko dirulaguntza ematea proposatu zuen, eta ordaindu aurretik bete beharreko baldintzak adierazi.

2007ko martxoaren 2ko ebazpenaren bidez, dirulaguntza emateko oinarriak onartu eta dirulaguntza eman zen.

Ordainketa-eskaerak (berriz ere erregistroaren zigorrik gabeko eskabidearekin) hauek jasotzen zituen:

- Kontzejuak 2007ko martxoaren 23an egindako bilkuran hartutako erabakiaren ziurtagiria. Erabaki horretan, obrak Murubideko ibarrean egindakoen osagarritzat hartzen ziren: "izan ere, obra horiek behar-beharrezkoak dira kontratu nagusia ondo betetzeko, eta osagarritzko obren zenbatekoa ez da hasierako kontratuko adjudikazioaren prezioaren ehuneko 50etik gorakoa"; eta hauek onar-



tu ziren: proiektua onartzea eta obrak nahiz obrazuzendaritza aurreko esleipendunei adjudikatzea.

Obren eta lansarien zenbatekoa, guztira, 199.371 eurokoa da.

- Jasotze-akta, 2007ko maiatzaren 7koa, eta obrak amaitu direlako ziurtagiria, egun berekoa.

- Azken ziurtagiria, fakturak eta banku-transferentzien kopia: 199.371 euro.

Maiatzaren 17an, ingurumenaren ebaluazio-eta lehengoratzeko saileko buruak txosten bat egin zuen, kontzejuak obren likidazioa aurkeztu zuela zioena, eta honako hau ere jasotzen zuena: "... obren lekua bisitatu eta aurkeztutako behin-behineko likidazioa aztertu ondoren, zuzentzat jo da; horregatik, badagokio emandako dirulaguntza ordaintzea".

Ordainketa 2007ko maiatzaren 22ko ebazpen bidez onartu zen.

Egindako obren berrikuste-txosten jada aipatuaren arabera, obra neurgarria 120.588 eurokoa da; hau da, gauzatutakoaren ehuneko 18 eta gauzatu gabekoa batzearen emaitza 43.725 euro da, neurgarri denaren ehuneko 36, hain zuzen ere. Transkripzio-akats bat aurkitu dugu, gauzatu gabeko zenbateko hori 52.896 eurora igotzen duena.

#### V.4. SAN KRISTOBALLEN ETA MURUBIDEAREN LABURPENA

San Kristobal eta Murubideko obren laburpen orokorra egiteko, esan dezakegu 474.317 euroko hasierako proiektua ez zuela onartu Herri Lan Departamentuak eta ibilbidea aldatu egin zela.

Haren ordez, bi obra egin ziren: San Kristobal eta Murubidea; azken hori bi alditan. Haien azken kostua 947.036 eurokoa izan zen, eta 663.363 euroren dirulaguntzak jaso ziren; kasu batean, lankidetzaz hitzarmen bidez, beste batean deialdi bidez eta hirugarrenean aurrekontuei buruzko legeko kontusail izendun bidez.

Obra egiteko arrazoiak premia eta arriskua dira. Arrisku hori justifikatzen duen ezein txostenen berri ez dugu izan, eta zalantzan jar dezakegu obraren premia, 2005eko urtarrilean eskatu eta zenbait alditan 2007ko maiatza bitarte egin baitzen.

Gainera, kontuan hartu behar da badagoela 2007an egindako beste obra bat, "San Roman eta Murubidea kaleetako hornikuntza- eta saneamendu-sareen eta zoladuraren berrikuntza", eta kasu horretan oraindik jaso gabe dagoela Toki Administrazio Departamentuaren dirulaguntza, osorik gauzatzeari 99.771 euroko zenbatekoa zegokiola eta

zenbateko horren ehuneko 85 zoladura berritzeko zela; jakina, zolatze horrek Murubideko aurreko lana osatzen du.

#### B) TOKI-ADMINISTRAZIOAREN LAGUNTZAK

V.5. HORNIKUNTZA- ETA SANEAMENDU-SAREEN BERRIKUNTZA ETA ZOLAKETA (I. FASEA)-TOKI AZPIEGITUREN PLANA (2001-2003), 7/2000 FORU LEGEA, UZTAILAREN 3koa (7. zk.)

Nafarroako Gobernuak Toki Azpiegituren arloko 2004ko Plan Berezia onartu zuen 2003ko ekainaren 16an, eta horretarako erabakiaren hitzaurrean hau jasotzen da:

"Toki Azpiegituren arloko 2004 Plan Bereziari buruzko azaroaren 19ko 30/2002 Foru Legearen 8. artikulua xedatzen duenez, uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean, 2001-2003ko hirurteko Toki Azpiegituren Planari buruzkoan, eta azaroaren 20ko 367/2000 Foru Dekretuan, Legea garatzeko Erregelamendua onesten duen horretan, ezarritako prozedura erabiliko da Plan Berezia prestatu, garatu, kudeatu eta aurrera eramateko, baina azaroaren 19ko 30/2002 Foru Lege bereko erregulazioaren ondoriozko egokitzapenak eginda.

Araudi hori aplikatuz, Nafarroako Gobernuak, 2002ko abenduaren 16ko erabakiaren bidez, 2004rako Toki Azpiegituren Plan Bereziaren Proiektua onetsi zuen, eta hilabeteko epea eman, 2003ko otsailaren 7an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta aitzina, Toki Programazioaren atalean hasieratik sartutako obren titular diren toki-entitateek azaroaren 20ko 367/2000 Foru Dekretuaren 55. artikuluan aipatu dokumentazioa eta ziurtagiriak aurkez ditzaten Toki Administrazio Departamentuan; eta, orobat, beharrezkoa iritzi gero, haien gaineko adierazpenak egin ditzaten.

Epe hori iraganik, eta toki-entitateek aurkeztu dokumentazioa ikusirik, 2004rako Toki Azpiegituren Plan Berezia onetsi behar da", eta, hasieran, Murugarrengo Kontzejuaren "sareen berritze partziala eta zolaketa" obra onuradunen artean sartzen da.

Sartze hori behin betikoa bihurtu zen apirilaren 4ko 57/2005 Foru Aginduaren bidez. Aurrekontu osoa 395.538 eurokoa izanik, 247.630 eurorainoko zenbatekoa erabakitzen da behar daitezkeen laguntzetarako, eta euroko 169.973 dirulaguntza ematen da. Kontzejuak 225.564 euroko kreditua hitzartuko du obra finantzatzeko.

Behin betiko sartze horren aurretik, txosten ekonomiko bat egin zen 2005eko otsailaren 14an ekarpenaren ehuneko kalkulatzeko; horretarako,

1999ko kontabilitate-datuak hartu ziren oinarri gisa.

Oso txikiak izan arren, interesgarria da azpimarratzea desberdintasunak daudela obra horiei dagozkien zenbait aurrekonturen artean. Halatan:

	Euroak
2004ko martxoko aurrekontua, Toki Administrazioaren espedientean jasoa	374.197,04
2004ko iraileko aurrekontu ikusi eta onetsia	374.229,93
2004ko abenduko xehetasunezko gauzatze-aurrekontua eta baldintzen orrian sartutakoa	375.118,24
Kontratazio-espedientea eta baldintzen orriak onartu zituen kontzejuaren 03-10-30eko erabakian kopuru hau dago adierazita:	374.283,30

Sareak berritzeko eta zoladura jartzeko obrari dagozkion egitate nagusien laburpena ageri da hurrengo taulan:

	Data	Zenbatekoa
Dirulaguntza ematea	2005-05-04	169.937
Obraren adjudikazioa	2005-06-20	395.538
Obraren hasiera	2005-10-10	-
Amaiera	Aurkezteke	
Dirulaguntza ordaintzeko erabakia	2005-12-23	16.980
Dirulaguntza ordaintzeko erabakia	2008-03-25	101.882

Kontzejuaren batzarrak hauek onartu zituen 2003ko urriaren 30eko bilkuran:

- Kontratazio-espedientea; obraren exekuzioari dagokionez, irekia izango da, lehiaketa bidezkoa.
- Kontratazio-espedientea; proiektua idazteko eta zuzendaritza fakultatiborako laguntza teknikoari dagokionez, murriztua izango da, publizitaterik gabe negoziatua.
- Administrazio-baldintzen orriak.

Bideragarritasun-txostena 2003ko martxoaren 19an egin zen, 2001eko kontuetan oinarrituta.

2004ko irailaren 12an, Toki Administrazio Departamentuak abuztuan egindako idazki bati erantzuteko eskabide bat aurkeztu zen, eskatutako dokumentazioa bere garaian aurkeztu zela adierazten zuena.

2004ko urriaren 1ean, azpiegitura hidrauliko eta sanitarioetako bulegoburuak txosten bat egin zuen; txosten horretan, hauek azpimarratzen ditugu:

“gainerakoari dagokionez (bi kale), gaur egun eraiki gabe dauden lur batzuen ertzeko bideak dira; eta badago zolatu baino egin behar ez den beste kale bat, urbanizatutako kalearen amaieran

hasi eta zelairantz joaten dena, inolako etxebizitzarako sarrerarik izan gabe”. Horregatik, “kontzejuak txosten tekniko eta urbanistiko bat bidali beharko du Departamentura, eta horretan ziurtatu eta zehaztu beharko da kaleak ez daudela partzialki edo osorik lotuta urbanizazio-gastuei, eragindako lurren jabeek ordaindu behar baitituzte, edo toki-entitateak, toki-planeamenduko gauzatze-sistemei edo indarreko hirigintza-legediak aurreikusitako jarraiki”.

2004ko abenduaren 14an, azpiegitura hidrauliko eta sanitarioetako bulegoburuak txosten batean dio Lizarrerriko ORVEren (Eraikinak eta Etxebizitzak Zaharberritzeko Bulegoaren) txosten tekniko eta urbanistikoa aztertu ondoren “beharrezkoa dela beste proiektu bat aurkeztea Departamentuan...”.

Proiektu berri hori 2005eko urtarrilaren 31ko eskabide bati atxiki zitzaion.

Erregistroaren 2005eko urriaren 27ko zigilua zeukan eskabide bidez, kontzejuak adjudikazio-erabakia eta zuinetaren egiaztapen-akta nahiz obraren hasiera-akta aurkeztu zituen.

Adjudikazio-erabakian esaten da espedientea 375.118 euroko aurrekontuarekin eta sei hilabete-ko gauzatze-epearekin onartu zela, eta adjudika-

zio-aldia prozedura irekiaren bidez hastea erabaki zela, presako prozedura bidezko lehiaketa eginez. Lizitazioan enpresa bakar bat aurkeztu zen, eta hura izan zen esleipenduna lizitazio-prezioa baino ehuneko 0,10 gutxiagorekin.

Obren zuzendaritza 10.818 euroan esleitu zen.

Zuinetaren egiaztapena eta obrak hasteko agindua jasotzen dituen akta 2005eko urriaren 10ekoa da.

Badago Murugarrengo Kontzejuaren Hiru Urteko Planetako obren eskusio-ebazpen bat, 2005eko azaroaren 2koa, obren hasiera ez jakinaraztearen ondorio dena, baina ebazpen hori 2005eko azaroaren 10eko beste batek artxibatu zuen, justifikazioak eskusio-prozedura hasi ondoren jaso baitziren.

2006ko azaroaren 16an, Toki Administrazioako zuzendari nagusiak Murugarrengo Kontzejuari esan zion obrek 2006ko apirilaren 10ean egon

behar zutela amaituta, eta 15 eguneko epea eman zuen eskatutako dokumentazioa aurkezteko; bestela, bidezko eskusio-espeditatea abiatuko zen, eta horri lotutako eskubide ekonomikoak galduko ziren.

2006ko azaroaren 28an, kontzejuak atzerape-na arrazoitzeko idazki bat aurkeztu zuen; izan ere, obrak “baldintzatuta daude eta aurretik eta aldi berean egin behar dira hustubidea, hobia eta ur zikinen tratamendua berritzeko proiektuko obrak” (NILSAk diruz lagundutako lana; V.6. atalean aztertutako dugu).

Egiaztatu ahal izan ditugun datuen arabera, Toki Administrazioako Departamentuak diruz lagundutako obra-zatiarekin batera, beste zati batzuk egiten ari dira (dirulaguntzarik gabe): “gas-sarea”, “sute- eta ureztaketa-sarea” eta “APP1 hirigintza-sektorea”.

Ziurtapen hauek aurkeztu dira:

	Zenbatekoa	Agiria	Data
Proiektua	9.612,99	Faktura	2007-06-15
1. egiaztagiria	183.466,93	Faktura	2007-06-14
Hirigintza-sektorearen 1. egiaztagiria	29.435,27	Faktura	2007-06-14
Sute- eta ureztaketa-sarearen 1. egiaztagiria	7.668,12	Faktura	2007-06-14
Gas-sarearen 1. egiaztagiria	4.711,23		2007-06-14
<b>1. egiaztagiriaren guztirako partziala</b>	<b>225.281,55</b>		
2. egiaztagiria	92.745,15	Ziurtagiria	2007-07-13
Sareen 2. egiaztagiria	22.645,39		2007-07-13
Hirigintza-sektorearen 1. egiaztagiria	4.882,95		2007-07-13
<b>2. egiaztagiriaren guztirako partziala</b>	<b>120.273,49</b>		
Obra-zuzendaritza			
Obraren 1. aldia	7.992,71	Faktura	2007-08-10
Sareak	1.013,50	Faktura	2007-08-10
Hirigintza-sektorea	993,06	Faktura	2007-08-10
<b>Obra-zuzendaritza guztizko partziala</b>	<b>9.999,27</b>		

2007ko ekainaren 16an, hauteskundeetatik sortutako korporazio berriak hartu zuen kontzejuaren gaineko ardura, eta bi kaletako obrak geldiarazteko agindu zuen, eta ez zuen onartu bigarren egiaztagiria.

2007ko uztailaren 13an, kontzejuak obraren zuzendariaekin zeukan kontratua deuseztatu egin zuen.

Eraikitzaileak, 2007ko uztailaren 31ko gutun bidez eta ikusita ez zegoela zuzendaritza fakultatiborik, hartua zela obra gauzatzea eteteko edo moteltzeko erabakia eta ez zegoela segurtasunahiz osasun-arloko arduradunik, nahiz eta arlo horietan enpresarentzat kalte larriak gertatu, hauek eskatu zituen: obraren prezioak berrikusteko, epea handitzea onartzeko eta obran metatutako galtzada-harriaren zenbatekoa ordaintzeko.

2007ko irailaren 18an, obra-zuzendaritza berria izendatu zuten, eta obra gauzatzeko bost hilabetekeo epea jarri.

Kontzejuak eta esleipendunak elkarri jakinarazitakoetatik ondorioztatzen da azken horrek lehen egiaztagiriaren ordainketa eskatzen duela (zeina aurreko kontzejuak onartu baitzuen 2007ko ekainaren 14an), eta prest dagoela obrak hasteko zor zaizkion zenbatekoak jaso ondoren.

Zenbait bilera eta jakinarazpen izan eta gero, obra-zuzendaritza berriak "1. eta 2. ziurtagirien egiaztapena" izeneko dokumentua egin zuen, eta horretan hauek esaten dira:

- Egungo obra-zuzendaritzak bere gain hartuko du hemendik aurrera obrak bukatu arte egiten diren obra guztien ardura, eta ez du bere eginen gaur egun arte egindakoaren gaineko inolako erantzukizunik.

- Jakinarazitako neurketa guztietan, ezin iritsizkoak dira obra-unitateetako asko (indusketa, luiziak, betelanak...); horregatik, esleipendunak eman eta aurreko obra-zuzendaritzak ziurtatutako zenbatekoak onartu egiten dira.

Berrikuspenaren emaitza hau da:

	Diruz lagundua	Hirigintza-sektorea	Sareak	Guztira
1. egiaztagiria	183.466,93	29.435,27	12.379,35	225.281,55
2. egiaztagiria	92.745,15	4.882,95	22.645,39	120.273,49
<b>Batura</b>	<b>276.212,08</b>	<b>34.318,22</b>	<b>35.024,74</b>	<b>345.555,04</b>
Berrikuspena	269.896,30	34.186,79	36.440,46	340.523,55
<b>Aldea</b>	<b>6.315,78</b>	<b>131,43</b>	<b>1.415,72</b>	<b>5.031,49</b>

2008ko urtarrilean, beste ziurtagiri bat egin zen; diruz lagundutako zatiarentzat 27.951,25 eurokoa izan zen.

Egiaztagiri horiek jaso ondoren, Gobernuak 101.882 euroko dirulaguntza ordaindu zuen 2008ko martxoan.

2009ko urtarrilean, eraikitzaileak kontratuaren suntsiarazpena jakinarazi zuen, eta ziurtatutako zenbatekoak (368.477,60 euro) nahiz metatutako galtzada-harriak (20.949, 60 euro) ordaintzeko eskatu zuen, bai eta fidantza itzultzeko ere.

Kontzejuak ez zuen aintzat hartu eskatutakoa, eta obrak utzi izana arrazoirik gabeko jokaeratzat hartu zuen. Iritzia eskatu zitzaion Nafarroako Kontseiluari.

Kontzejuak peritu-txostena eskatu zuen; txosten hori lan publikoetako ingeniari tekniko batek egin zuen, eta 2009ko urtarrilean ikusi eta onetsi zuten. Bi ziurtagiriei, batera, 253.774,46 euroko balioa eman zien.

Kontseiluak 2009ko martxoan egindako irizpe-nean adierazi zuen bidezkoa zela kontratua suntsiaraztea behin betiko bermea konfiskatu gabe.

Kontzejuko egungo kideek uste dute obra ez dela beharrezkoa eta adierazi dute obraren benetako balioa ziurtatutakoa baino ehuneko 40 txikiagoa izan daitekeela.

Obra bukatu gabe dago.

### C) NILSA-REN LAGUNTZAK.

V.6. HUSTUBIDEA, HODIA ETA UR ZIKINEN TRATAMENDUA BERRITZEA. (NILSAREN DIRULAGUNTZA) (12. zk.)

NILSA ("Navarra de Infraestructuras Locales S.A.") sozietate publikoak sareak berritzen dituzten herri txikietan lan egiten du. Horrenbestez, Toki Administrazioiko Departamentuak Murugarrengo "Sareen berrikuntza eta zolaketa" obra onartu ondoren, NILSAk herri horri diruz laguntzeko prozedura abiarazi zen, tokiko azpiegitura-planetako

irizpide arau-emaielen arabera arazketa-sistema bat lortzeko.

NILSAren jardura, nagusiki, "lankidetzaren" prozeduraren bidez gauzatzen da, eta sozietate publiko horrek obra guztia kudeatzen du bere talde teknikoarekin.

"Kudeaketa zuzena" deritzon prozedura (minoritarioa, sozietate publikoaren jardueraren ehuneko 10 baino ez baita) hiri-lurretatik kanpo sareak berritzeko eta saneamendua egiteko erabiltzen da; leku horietan, obra-proiektuaren idazketa, obraren adjudikazioa eta zuzendaritza administrazio-agintaren erantzukizuna da, NILSAk gainbegiratuta.

Bi kasuetan, dirulaguntza obra finantzagarriaren kostuaren ehuneko 100 da.

Proiektuan lan hauek jasotzen dira: ur zikinak "Imhoff tanke" batean arazteko sistema bat gauzatea; eta hiriguneko saneamendu-sareak komunikatzen dituen adarraren ibilbide berria egitea.

Aipatu azpiegitura horiek Nafarroako ibaiak saneatzeko plan zuzentzaileari atxikiko zaizkio, eta NILSAren ardura izango da haiek mantentzea.

Orain, obra horri lotutako alderdi azpimarragarriak adieraziko dira:

Murugarrengo Kontzejuak 2003ko abenduaren 15ean egin zuen obra gauzatzeko eskaera.

2003ko abenduaren 23an iritsi zen NILSAren erantzuna; esan zuen aztertu eginen zutela eskaera, eta sozietate publikoko teknikari bat mintzaide izendatu zuen.

2004ko urtearen hondarrean, proiektuaren idazleak haren lehen zirriborroa aurkeztu zuen; 600.000 euroko aurrekontua zuen.

NILSAk, obraren kostuari gehiegizko iritzita, berriz aztertu zuen proiektua, antzeko kasuetan aurrekontua nabarmen txikiagoa izaten baita, eta puntu batzuk argitzeko eskatu zuen.

2005ean, zenbait bilera egin ziren NILSAren eta proiektuaren idazlearen artean, proiektua hobetu eta NILSAren eskakizunetara egokitzeko.

Proiektuaren finantzaketaren onarpen-txostena 2006ko otsailaren 27an sinatu zen. Kostu finantzagarri hau erabaki zen: 169.152,91 euro.

2006ko maiatzaren 15ean, bilera bat egin zen kontzejuak eskatuta. Proiektua onartutakoan, beste bilera batera deitu zuten. Bilera horretan zenbait aldaketa egitea erabaki zen, baina aldaketok ez zuten handitzen proiektuaren aurrekontua; izan ere, ibilbide berria aurreikuspenen arabera harri gutxiagokoa zen leku batean egin beharrekoa zen.

2006ko maiatzaren 17an, kontzejuak eskabide bat aurkeztu zuen, proiektua berriz onar zezaten, 2006ko lehendabiziko hilabeteetan proiektuaren baldintzak partzialki aldatzen zituzten jardura batzuk tramitatu baitziren. Haietan nagusia Murugarrengo aldaketa egituratzailea izan zen, 20. eremuko 377. partzelako alde hiritargarran 35 etxebizitza familiabakar eraikitzeak aukera ematen baitzuen; promozioa administrazioan izapidetzen ari zen.

Planteatutako aldaketek eragindako kostu-handitzeak kontzejuaren kontura izanen dira. Horrek zati berriaren kostua hirigintza-handitzeari gehituko dio.

Proiektua 2005eko azarokoa da, eta baso-ingeniaritza teknikoaren elkargoan ikusi eta onetsi zuten 2006ko ekainaren 24an.

2006ko ekainaren 22an, kontzejuko presidentek behin betiko proiektua aurkeztu zuen (27an erregistratu zen NILSAren), ikusi eta oniritzita aurkeztu ere, eta jadanik adierazitako aldaketa zehatzak eginda, haren tramitazioa abiarazi eta zegozkion laguntzak behin betiko eman zitzaizkien.

Kontrata bidez gauzatzeko aurrekontua 211.636,19 eurokoa zen; zenbateko horri lansariei lotutako 12.710,95 euro gehitzen zitzaizkien, bai eta beste gastu batzuei lotutako 6.231,63 euro eta kalte-ordainei lotutako 4.854,22 euro ere, eta, horrenbestez, 235.522,98 eurokoa zen obraren guztizko kostua, obra gauzatzeko hiru hilabeteko epea izanik. Zenbateko horretatik, 195.763,87 euro NILSAk bere gain hartutako zatiari zegozkion, eta kontzejuarentzat 39.759,11 euro geratzen ziren.

2006ko uztailaren 17an, Ekonomia eta Administrazio Saileko zuzendariak sinatuta, txosten bat egin zen, kostu finantzagarria 169.290,96 eurokoa zela adierazi zuena, honela banakatuta:

	Euroak
Kontrata gauzatzeko aurrekontua	150.894,01
Proiektua egitearen lansariak	3.447,15
Obren zuzendaritzako lansariak	4.747,97
Afekzioak	3.835,17
Topografia	3.108,68
Azterlan geologikoa	2.100,00
Onirizpen-gastuak	533,46
Zenbait gastu	241,00
<b>Guztira</b>	<b>169.290,96</b>

Kontzejuko idazkariak 2007ko apirilaren 10ean obren adjudikazioari buruz egindako ziurtagiriaren arabera; hartan, jasotzen da 2007ko martxoaren 23an abiarazi zela espediente, erkidegoan publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleitzekoa, 211.636,18 euroko lizitazio-aurrekontua zuela eta obra gauzatzeko bi hilabeteko epea zegoela.

Guztira hiru enpresari egin zitzaizkien kontsultak, eta proposamen ekonomikoa, epea eta lan-programa ebaluatu ziren.

Obra hau izan da enpresa desberdin bati esleitutako bakarra; zenbatekoa 211.169,47 eurokoa da (ehuneko 0,2205eko beherapena), eta gauzatzeko epea 1,5 hilabetekoa.

Zuinketa eta obren hasierako akta 2007ko apirilaren 5ekoa da.

2007ko ekainaren 13an, obra-zuzendariak obrak bukatuta zeudela ziurtatu zuen, guztizko aurrekontua 215.592,71 eurokoa izanik. NILSAK finantzatuta, guztira, 185.762,24 euro.

Bestalde, 4.423,19 euroko obra-handitzea justifikatuta dago; alde batetik, putzuen kokapenaren aldaketagatik; bestetik, beharrezkoa delako horien kokapena nekazaritza-finken mugara egokitzea, finkekiko afekzio iraunkorra ahalik eta txikiena izan dadin.

2007ko ekainaren 27an, NILSAko teknikariak bisita egin zuen, eta txosten bat egin zen, gauzatu gabe zer zegoen jasotzen zuena.

Uztailaren 16an, likidatzeko moduan dagoen obrari buruzko barne-txosten teknikoa egin zen. Obraren guztizko kostua (NILSAren dirulaguntzaren ikuspuntutik) 180.893,76 eurokoa izan zen, eta honela zegoen banakatuta:

Kostuaren kontzeptua	Aurrekontua	Amaierako	
		lik.	Aldea
Esleipena gauzatzea	150.894,01	160.139,86	9.245,85
Proiektuaren idazketa	3.447,15	3.392,90	-54,25
Obren zuzendaritza	4.747,97	4.891,51	143,54
Afekzioak	3.835,17	3.418,87	-416,30
Afekzioen kudeaketa	383,52	962,76	579,24
Topografia	3.108,68	2.100,00	-1.008,68
Azterlan geologikoa	2.100,00	2.240,00	140,00
Ganbera-azterlana		241,00	241,00
Oniritziak	533,46	563,64	30,18
Beste gastu batzuk (iragarkiak)	241,00	2.942,21	2.701,21
<b>Guztira</b>	<b>169.290,96</b>	<b>180.892,75</b>	<b>11.601,79</b>

NILSAK dirulaguntza hau ordaindu zuen:

	Euroak
Kontura egindako ordainketak	67.567,05 * 2 = 135.134,10
Azken likidazioa	45.759,66
<b>Guztira</b>	<b>180.893,76</b>

Taula honetan ikus dezakegu obraren laburpena:

	Onartutako aurrekontua*	Emandako dirulaguntza	Fakturatutako guztia*	Fakturatutakoa BEZik gabe	NILSA	Kontzejua
Gauzatze materiala	211.636,19	150.894,01	215.592,71	185.855,78	160.139,86	25.715,92
Beste gastu batzuk	23.886,79	18.396,95	29.374,78	25.581,80	20.753,90	4.827,89
<b>Guztira</b>	<b>235.522,98</b>	<b>169.290,96</b>	<b>244.697,49</b>	<b>211.437,58</b>	<b>180.893,76</b>	<b>30.543,81</b>

\* Aurrekontu- eta fakturazio-datueta BEZa bame dago.

Kontzejuko egungo kideek peritu-txosten bat egiteko eskatu zuten, egindako obrak jaso eta ebaluatzeko. 2009ko martxoko txostenean (lan publikoetako ingeniari teknikoen elkargoak ikusi eta oniritzia) egindako ebaluazioaren arabera, gauzatutako zenbatekoa 154.439,04 eurokoa da, eta horri ziurtatuta bai baina gauzatu gabeko lanak gehitu beharko litzaizkioke (9.911,07 euro), ziurtapeneko 215.592,71 euroekin konparatzeko. Gainera, uste du obra Murugarrenko Kontzejuaren gogobetegarri izateko moduan osorik amaitzeko, 1.991,58 euroren lanak egin behar direla.

#### D) LANDA-GARAPENERAKO LAGUNTZAK.

V.7. 2003an LARREAK HOBETZEA (LARREAK SORTU ETA HOBETZEKO LAGUNTZEI BURUZKO 192/2001 FORU DEKRETUAREN ARABERAKO DIRULAGUNTZA) (1. zk.)

192/2001 Foru Dekretuak Nafarroako Foru Komunitateko toki-entitateei mendi komunaletan larreak sortu eta hobetzeko zer laguntza eman arautzen zuen, harik eta abenduaren 21eko 137/2005 Foru Dekretua onartu zen arte, aurrekoa indargabetu egin baitzuen, eta 2005eko abenduaren 31tik aurrera hasi baitzen eragina izaten.

Dirulaguntzaren zenbatekoa: benetako kostuaren ehuneko 60, eta gehienez proiektuaren aurrekontua izango da.

Baldintzak.

- Abeltzaintza Zerbitzuaren txostena: dagoen abeltzaintza-karga eskatzen den dirulaguntza justifikatzeko adinakoa dela egiaztatu behar du.

- Ingurumen-baimena, Ingurumen Departamentuak emana.

- Kontseilariaren Foru Agindua, funtzioak Nekazaritzako Egituretarako zuzendari nagusiaren esku uztea baztertu gabe: Zuzendari nagusiaren ebazpena, 1999ko urriaren 25eko Foru Agindua esleitutako ahalmenak erabiliz.

Foru Dekretuan ez da aipatzen aurkeztu beharreko dokumentazioa, hain gutxi zein diren onuradunen betebeharrak.

Esan digutenaren arabera, dirulaguntza banan-banan ematen zen; horregatik ez da jasota geratu inolako ebaluaziorik, laguntzak nola eman ziren jakiteko bidea emanen digunik.

Espedientean 2001eko abuztuaren 7an erregistratutako eskabide bat dago artxibatuta; eskabide horretan larreak hobetzeko proiektua handitzeko eskatzen zen, eta handitze horretarako aurrekontua 75.769,60 eurokoa zen.

2003ko urtarrilean, Nekazaritzako Egituretarako Zerbitzuko Komunalen Sailak "Lur komunaletan larreak hobetzeko proiektua" egin zuen; proiektuak, guztira, 47.828,80 euroko kostua zuen.

Proiektu hori, funtsean, hauek egitea da: alambre arantzaduneko itxitura (2.900 ml); ura eramateko hodiak (3.800 ml); eta bi aska.

Kontzejuko idazkariak egindako ziurtapenaren arabera, proiektua 2003ko otsailaren 19an egindako bilkuran onartu zen.

Ingurumeneko zuzendari nagusiaren 2003ko martxoaren 4ko ebazpenaren bidez, larreak hobetzeko proiektua baimentzen da.

Nekazaritzako Egituretako zuzendari nagusiaren 2003ko apirilaren 7ko ebazpenaren bidez, proiektua onartu egin zen 47.828,80 euroko aurrekontuarekin, eta 28.697,28 euroko dirulaguntza eman zen.

Abeltzaintzako azpiegituretan laguntzeko bulegoko buruak, 2003/11/03ko idazki bidez, kontzejuari gogorarazi zion hartuta zeukala obrak 2003an bukatzeko eta fakturak abendu hasieran bidaltzeko konpromisoa.

Erregistroaren zigorrik gabeko eskabide bat dago, 2003ko azaroaren 21ekoa; horren bidez, kontzejua obren lehen ziurtagiria/likidazioa erantsi zion 2003ko azaroaren 30eko fakturari (47.831,24 eurokoa).

Faktura horretan aurrekontuarekiko alde nabarmenak daude, azken zenbatekoa salbuetsita. Hala, ez da egin aurreikusitako itxitura, eta ura eramateko metroen kopurua handitu egin da, 3.800etik 5.771ra, abeltzaintzako azpiegituretan laguntzeko bulegoak 2003ko abenduan egindako txostenaren arabera: "... ura eramateko hodiaren bidean izandako hainbat arazorengatik, bide hori aldatu egin da eta, horren ondorioz, bidea 1.971 ml handitu da, baina onartutako aurrekontua guztia egiteko nahikoa ez zenez, ez da egin aurrez pentsatutako itxitura, eta beste proiektu batean egiteko gelditu da".

Landa Garapeneko zuzendari nagusiaren 2004ko urtarrilaren 15eko ebazpenaren bidez, 28.697,28 euroko dirulaguntza ordaintzea onartu zen, onartutako aurrekontuaren ehuneko 60ari zegokion lehen eta azken likidazio moduan.

Bestalde, basoen kudeaketarako sailak 2004ko abuztuaren 27an egindako txosten bat ikusi ahal izan dugu; txostenak Murugarrengo lur komunalean larreak hobetzeko proiektu batekin du zerikusia; hobetze-lanak hauek ziren:

- Alanbre arantzaduneko 1.400 ml-ko itxitura.
- Aurrefabrikatutako hormigoizko bi aska, kutxatila, hodiak eta ur-horniketarako beharrezko beste elementu osagarri batzuk.
- Aurrekontua 25.629,48 eurokoa da.

Aipatu txostenean hau adierazten da:

"Gaur egun edo azken garaietan Murugarrengo barrutian ganadurik ez dela izan ikusi da. Planoan delineatuta agertzen den itxiturak 800 ml-ko luzera du, aurrekontuan jasota dagoen 1.400 ml-koa izan beharrean. Itxi beharreko lekua hiru hektareako artadi bat da. Ganadua inguru horretan biltzeak eragin kaltegarria izan dezake luraren kontserbazioan eta lur-zerrendako landaredian; horregatik, proposatzen da itxitura baso-ingurunean afekzio gutxiago izango den beste leku batean jartzea.

Ez dakigu beste ezer proiektu honetaz, eta kontzejuko egungo arduradunek ez daukate gauzatu delako ziurtasunik.

**V.8. 2003ko OTSAILEKO UHOLDEEK ERAGINDAKO KALTEAK (EZOHIKO LAGUNTZAK, UHOLDE IKARAGARRIEK KALTE EGIN DIETEN TITULARTASUN PUBLIKOKO NEKAZARITZAKO AZPIEGITURAK KONPONTZEKO. 2003) (3. ZK.)**

40/2003 Foru Dekretuak (otsailaren 24koa eta Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 25. zk.an argitaratua) argi jaso zuen zer laguntza eman behar ziren 2003ko uholdeek eragindako kalteak konpontzeko;

geroago, ordea, 52/2003 Foru Dekretuak aldatu egin zuen.

Dirulaguntzaren zenbatekoa: Babes zitekeen aurrekontuaren ehuneko 100.

Ezohiko laguntzen eskaera 2003-03-24an aurkeztu zen erregistroan. Dokumentu hauek eraman ziren:

- Batzarrak bai laguntzak eskatzeko bai egin beharreko lanen kontratazioa emergentziaz izapidetzeko hartutako erabakiaren egiaztatzea.
- 26.331,02 euroko guztizko kostuarekin egin beharreko jarduerak justifikatzeko memoria, obra-zuzendariak egina.

2003ko ekainaren 30eko Foru Agindu bidez, dirulaguntza bat eman zitzaion kontzejuari, baina aurrekontua gutxitu egin zen 9.221,37 eurora, egindako neurketa eta ebaluazioak eta ohiko prezioak kontuan hartuta.

Obra horiek egiteko gehieneko epea 2003ko azaroaren 30ean amaitzen zen.

Kontzejuak, 2003ko azaroaren 21eko eskabide bitartez, obra-zuzendariak egindako lanen ziurtagarria gehitzen du, hala nola eraikuntza-enpresaren faktura, 2003ko urriaren 29koa eta 9.221,37 eurokoa.

2004ko urtarrilaren 12ko ebazpen baten bidez, kontzejuari 9.221,37 euroko dirulaguntza eman zitzaion.

**V.9.LARREAK HOBETZEA LUR KOMUNALETAN: URMAELA ERAIKITZEA ETA ASKAK JARTZEA. (LARRE KOMUNALETARAKO DIRULAGUNTZA, 2005 ETA 2006) (6. eta 8. zk.ak)**

Proiektu honek 192/2001 Foru Dekretuko arauari helden die; arau horietaz VI.7 atalean hitz egin genuen, eta hari lotzen gatzazkio.

2005eko urtarrilean, abeltzaintzako azpiegituretarako laguntzen bulegoak "Lur komunaletan larreak hobetzeko proiektua" egin zuen; proiektuak, guztira, 34.312 euroko kostua zuen.

Lan horiek urmael iragazgaiztu bat eraikitzea eta, geroago, hiru aska jartzea dira.

2005eko otsailaren 4ko erregistro-datarekin, kontzejuak lan horiei zegozkien dirulaguntzak emateko eskatu zuen eta, gainera, ziurtatu zuen 2005eko urtarrilaren 21ean egindako bilkuran larreak hobetzeko proiektua onartzea erabaki zuela, 34.312,37 euroan onartu ere. Proiektu hori abeltzaintzako azpiegituretan laguntzeko bulegoak egin zuen. Era berean, kontzejuak ziurtatu zuen azienda-karga 90 behikoa eta 1.600 ardikoa zela.



Landa Garapeneko zuzendari nagusiaren 2005eko uztailaren 1eko ebazpenaren bidez, 20.587,42 euroko dirulaguntza eman zen (aurre-

kontuaren ehuneko 60: 34.312,37 euro). Aurrekontua, 34.312,37 eurokoa, bi urtetan banatuko zen:

	Inbertsioa eurotan	Dirulaguntza (%60) eurotan
2005. urtea	17.156,19	10.293,71
2006. urtea	17.156,18	10.293,71

Obra honetarako, esleipendunaren bi faktura daude. Bata, 2005eko azaroaren 17koa da, eta 17.223,97 eurokoa; bestea, 2006ko abenduaren 15koa, eta 14.996,87 eurokoa. Bigarren ziurtape-neko zenbateko txikiago horren arrazoia da aska bakar bat ziurtatu zela, aurreikusitako hirurak ziurtatu beharrean.

2005eko abenduaren 27ko ebazpen bidez, 10.293,71 euro eman zitzaizkion Murugarrengo Kontzejuari (17.156,19 euroko dirulaguntzaren ehuneko 60), eta 2007ko urtarrilaren 12ko ebazpen bidez, 8.998,12 euro (14.996,87 euroren ehuneko 60).

V.10. URA LARREETARAINO ERAMATEA. (99/2006 FORU AGINDUA, MARTXOAREN 30koa, 2006ko EKITALDIAN TOKIKO ABELTZAINZA-AZPIEGITURETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA ARAUTZEN DUENA) (9. zk.)

Proiektuan adierazten denaren arabera, ura "El Encinarko" urmaeletik "El Prado" eta "Dominguilloko" larre komunetaraino eramatea da haren helburua eta, horretarako beharrezko egitura, funtsean, hoditeria (1.400 ml) eta hormigoizko bi aska dira.

Proiektua 2006ko otsailekoa da, eta 30.310,03 euroko aurrekontua aurkeztu zen.

2009ko maiatzaren 10ean, kontzejuak eskabide bat aurkeztu zuen laguntza deialdian adierazitako epearen barruan eskatzeko, eta hartan jasotako dokumentuak erabiliz.

Gobernuak batzorde tekniko bat eratu zuen, eskaerak barematu zituen, eta, Abeltzaintzako Azpiegituren Batzordeak bilera egin ondoren (nekazaritza-sindikatuak eta Nafarroako Udallerri eta Kontzejuen Federazioa dira horretako kide), aurkeztutako 107 eskaeretatik 67ri eman zizkien laguntzak 2006ko abuztuaren 29ko ebazpen bidez. Horien artean Murugarrengo Kontzejuarena dago (12.052,01 eurokoa).

Erregistroaren zigilua duen 2006ko azaroaren 20ko eskabide baten bitartez, dirulaguntza ordaintzeko eskatu zen, eta dokumentu hauek gehitu ziren:

- Kontzejuko idazkariaren ziurtagiria, obra gauzatzea erabaki zela adierazten zuena; aurrekontua eskatu zitzaien enpresei, eta enpresa baten 28.415,31 euroko bat jaso zen; horregatik, zenbateko hori zela eta, ez zen beharrezkoa zegokion faktura ez zen beste dokumentaziorik. Adjudikazioa eraikitzaile horri egin zitzaion.

- Obraren zuzendaritzarako laguntzari buruzko antzeko ziurtagiria; obra 979,84 euroan esleitu zen.

- Zuinketaren egiaztapen-akta, 2006ko urriaren 27koa.

- Obren jasotze-akta, 2006ko azaroaren 15koa.

- Proiektua egitearen faktura eta obra-zuzendaritzarena, 06/11/16koak, 734,88 eurokoa eta 678,75 eurokoa, hurrenez hurren.

- Eraikitzailearen faktura, 2006ko azaroaren 15koa, 19.683,68 eurokoa.

- Eraikitzailearen eta obra-zuzendariaren ziurtagiriak, 2006ko azaroaren 16koak; ziurtagiri horietan, esandako zenbatekoak jaso dituztela adierazten dute.

Banku-laburpenen arabera, ordainketa 2007ko apirilean egin zen.

Abenduan, Gobernuo teknikaiek ikuskapen-akta egin zuten, eta horretan hau adierazi: "...hoditeria osoa aztertu dugu. Proiektuaren arabera da. (Ez da beharrezkotzat jo bigarren aska egitea)"

2007ko urtarrilean, ebazpen bidez, dirulaguntza ordaintzea erabaki zen (8.438,92 euro); zenbateko hori onartutakoa baino txikiagoa zen, ziurtatutako zenbatekoa txikiagoa izatearen ondorioz.

Geroago, kontzejuko kideekin egindako bilera batean, esan ziguten ez zutela bi askako proiektu horren berri, bai baitakite antzeko proiektu bat dagoela, bi aska izan beharrean, bat baino jasotzen ez duena. Egindako bisitan, egiaztatu dugu lau babes-kutxatila daudela, baina ez da jakina zertarako diren; azkenean, bi harraskako aska batera ematen dute, baina aska konektatu gabe

dago, haietan ez baitago urik. Hala ere, lau kutxatila horietako bat aska baino beherago dago. Edozein moduz, aska ez badago konektatuta, ezin jakin zertarako den kutxatila, eta ez badago animaliarik bazkatzen, zalantzazkoa iruditzen zaigu oso proiektuaren justifikazioa.

#### V.11. BESTE ALDERDI BATZUK

Atal honetan, beste kontu orokor batzuk jasoko ditugu, txostenean egindako iruzkinen osagarri.

##### V.11.1. Nafarroako Gobernuak eskatutako itzulketak

Urbazterrak lehengoratzeko eta lan hidraulikoak egiteko ardura duen saileko teknikari batek eta Gestión Ambiental, Viveros y Repoblaciones de Navarra S.A.ko beste teknikari batek Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuko Ur Zerbitzuko zuzendariaren eskariz egindako txosten tekniko-

ren ondorioz, eta urriaren 13ko ebazpen bidez, 84.294,86 euro itzultzeko eskatu zitzaion Murugarrengo Kontzejuari (75.991,45 euro printzipal moduan eta 8.303,41 euro interesengatik), “zati batean ez betetzeagatik dirulaguntza horien helburua: sakanak eta ibaiak egokitu eta bideratzeko zenbait obra egitea haiek udalerritik igarotzen diren tarteetan.”

Txosten horren arabera (laburki iruzkindu genuen obrak azaltzean), kontusail gehienak ezin neurtuzkoak ziren (indusketak, betelanak eta abar). Eta hala, txostenak dio, berraztertu beharreko kopurua 1.049.802 eurokoa izanik, 131.814 euroren kontusailak baino ezin zitezkeela egiaztatuta.

Azterketa guk geuk egiaztatuta, datuak transkribatzean egindako akats txikiak aurkitu ditugu; horien ondorioz, alde batzuk daude.

Obra	Gauzatu gabe txostenaren arabera	Comptos Ganberan zuzendua
Unzalingo sakana	6.539,75	6.539,75
San Kristobalگو sakana	26.958,49	24.903,14
Murubideko behe-ibarra	42.493,20	51.663,66
Murubidea handitzea	1.234,04	1.234,04
<b>Guztira</b>	<b>77.225,48</b>	<b>84.340,59</b>

Nafarroako Gobernuaren erreklamazioa 75.991,45 eurokoa da (gehi interesak), ez baita gehitu “Murubidea handitzea” delakoari dagokion zatia.

Gure berrikuspenaren arabera, gauzatu gabeko zenbatekoa 84.340,59 eurokoa da, baina, gure ustez, Nafarroako Gobernuaren erreklamazioa diruz lagundutako zatiagatik egin beharko litzateke, inoiz ere ez dena ehuneko ehuneko.

##### V.11.2. Zorra eraikitzaileekin

Egindako zirkularizazioaren arabera, eraikitzaileak berretsi egiten du 901.578,52 euroko zor bat dagoela zertu gabeko egiaztapenengatik, eta 20.949,60 euroko beste bat galtzada-harrien meta-ketagatik; obra-zuzendariak 24.506,48 euroko zorra berretsi du.

IV. ataleko taula aztertzen badugu, ikusiko dugu ziurtatutako obra, guztira, 2,3 milioikoa dela eta jasotako dirulaguntzen kopurua, guztira, 1,2 milioikoa; horregatik, eraikitzaileak erreklamatzeko duen zenbatekoa egindako obretan diruz lagundu gabe gelditutako zatiaren ia baliokidea da.

Inbertsioen eta obren zenbateko horiek, oso alde txikiekin, kontzejuaren 2003-2007 aldiko kontabilitatean jasotako antzekoak dira.

Bestalde, esan behar da kontzejuak, 2008ko abenduaren 31n, baloreetan gordailutatutako funtsak zituela (150.000 euro guztira).

Eraikitzaileak eskatutako zorra eta banku-laburpenak alderatzen baditugu, ikusiko dugu, besteak beste, 2005eko abenduaren 16an 214.210 euroko zordunketa bat eta ordainketa bat daudela. Zordunketa San Kristobalگو sakanari dagokion ziurtapenaren ordainketaren frogagiri gisa aurkezten da, eta eraikitzaileari benetako ordainketa 2006ko urtarrilaren 30ean egin zitzaion, dirulaguntza jaso ondoren.

Orobat gertatzen da 2006ko abenduaren 15eko 492.621 euroko zordunketa eta ordainketa banarekin (Murubideko ibarrari dagozkionak); egiazki, 2007ko urtarrilean eta ekainean ordaindu zitzaion eraikitzaileari (296.307 euro, guztira).

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñan, 2009ko irailaren 14an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## NAFARROAKO GOBERNUAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Murugarrengo Kontzejuak 2003-2008an jasotako laguntza eta dirulaguntzei buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostenaren proposamena ikusita (Nafarroako Comptos Ganberak egina), Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazioako Departamentuak eta Landa Garapen eta Ingurumenekoak komenigarritzat jo dute alegazio eta zehaztapen hauek egitea, kontuan hartuak izan daitezten txostenaren fiskalizazio-eraketa, bai eta, txostenak gomendatzen duenaren arabera, dirulaguntzak eta laguntzak emateko beharrezkoak diren prozedurak, baldintzak eta egiaztapenak berraztertze prozesuan ere.

### 1. LANDA GARAPEN ETA INGURUMEN DEPARTAMENTUA.

#### Lehenengo alegazioa

Behin-behineko txosteneko 12. orrialdean, Nafarroako Gobernuaren kudeaketari dagokionez, honako hau esaten da hitzez hitz:

“Akatsak ikusi ditugu espedienteetako dokumentazioan, eta egiaztatu ahal izan dugu proiektu batzuk falta direla, proiektu bererako zenbait aurrekontu daudela eta sarrerako erregistro-zigilurik gabeko eskabideak daudela.”

Proiektuak falta izateari dagokionez, uste dugu San Kristobalgori sakanean egindako proiektuaz arituz, 19. orrialdean hau esaten baita: “... baina ez dugu aurkitu proiektua gauzaturik.”

Txostenak dioten bezala, Herri Lan, Garraio eta Komunikazioetako Departamentuak proiektua ez onartzeak hura aldatzera behartu zuen, baina aldaketa horretaz, zehazki, froga ofizial eta aitortu bakarria dago: “ . urtetik . urtera bitartean Murugarrengo udalerrian (Nafarroa) egindako obraren exekuzioari buruzko Txosten Teknikoa” delakoan dagoen plano bat.

Txosten hori egitean, informazioa eskatu zitzaien obra-zuzendariari, eta horrek proiektua helarazi zuen, bai eta bidezko aldaketak ere, baina hartan elkargoaren oniritzia izan gabe, eta, horrenbestez, ezin ziurta daiteke proiektu hori gauzatu aurretik aurkeztu zenik; Departamentuko artxiboan dago, baina ez zen dokumentu ofizial moduan erabili txostena egiteko, ez baitago frogatzerik Departamentuan aurkeztu zenik (hitzez adierazi ziguten bezala) obrak gauzatu baino lehen.

#### Bigarren alegazioa

21. orrialdean, 2006ko laguntzetarako deialdian ebatzita aritzean, esaten da laguntzak ematean kontuan hartu zirela bai arrisku-irizpidea bai obrei ekiteko premia-irizpidea, baina txostenetan

laguntzak generikoki aipatzen dira, haiek azaltzeko eta justifikatzeko datuak zehaztu gabe.

Idea bera azpimarratzen da 23. orrialdean (San Kristobal eta Murubidea, laburpena), hirugarren paragrafoan, obrak premiak eta arriskuak justifikatzen dituztela esateaz gain, honako hau ere adierazten baita: “Arrisku hori justifikatzen duen ezin txosten berri ez dugu izan, eta zalantzan jar dezakegu obraren premia, 2005eko urtarrilean eskatu eta zenbait alditan 2007ko maiatza bitarte egin baitzen.”

Zehaztu behar da Ingurumenaren Integrazio Zerbitzuko zuzendariak, Ingurumenaren Ebaluazio eta Lehengoratzeko Saileko buruak eta Ibai-obretarako Bulegoko buruak sinatutako akta bat dagoela, deialdira aurkeztutako proiektuak hartan agertzen ziren irizpideekin ebaluatzen dituen; jakina, ebaluazioa subjektiboa da, baina ardura zuten hiru teknikariek egin zuten; gainera, Saileko buruaren txosten argigarri bat dago, eta bai Zerbitzuko zuzendariaren nahiz Saileko buruaren txosten-proposamenak bai Ebazpenak deialdirako irizpideei dagokiena jasotzen dute. Dokumentazioa Comptos Ganberari bidali zitzaion 2009ko uztailaren 1ean. Premiari dagokionez, argi dago aurrekontua aski ez izateagatik ez zela gauzatu proiektua 2005ean, 2006ko eta 2007ko aurrekontuen kontura gauzatu behar izan baitzuten.

Beti da eztabaidagarria sakanak arriskutsuak direlako irizpidea, haien itzulera-aldiari buruzko ikerketarik ez izaki, ibaiekin gertatzen ez den bezala; izan ere, begi-bistakoa da arazo handiak sortu dituztela Caparrosen, Allon, Azkoiainen eta abarretan eta, horregatik, toki-entitateen jarrera ere kontuan hartu behar da. Kasu honetan, kontrasesana dago aurreko kontzejuaren iritzia eta egungoaren artean; guztiaz ere, herria zeharkatzen zuen sakan bat da.

### II. TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA

#### Lehenengo alegazioa

Dirulaguntza nahiz laguntza hitz generikoari dagokionez, adierazi behar dugu Toki Administrazioako Departamentuak ez diola inolako dirulaguntzarik eman Murugarrengo Kontzejuari aztertutako aldirian (2003-2008), baina ekarpenak egin dizkiola kontzeju horri Toki Ogasunen Funtsean zordunduta, hartako Kapital Transferentzien atalean zehazki; horiei dagokienez, beharrezkotzat jotzen dugu hurrengo hauek zehaztea:

Toki Administrazioako Departamentuak zorrotz bete ditu 2001-2004ko Toki Azpiegituren Planean aipatu kontzejuaren onurarako izandako obra bakarrak (hornikuntza- eta saneamendu-sareak berritzea eta zolatzea – 1. fasea) barne hartzeko

ezarritako arauak. Halatan, behin betiko barne har zedin aurkeztutako lehen proiektuaren azterketaren ondoren, proiektua kontzejuari itzuli zitzaion, zuzen zezan, Ganbera honen behin-behineko txostenak jasotzen duen bezala.

Obrak gauzatzean izandako kontrolari dagokionez, adierazi behar dugu Toki Azpiegituren Zerbitzuko teknikariek hamahiru aldiz bisitatu zituztela obra horiek 2005eko azarotik 2007ko arazora bitarte, zerbitzu-irteeretakako baimenetan jasota dagoen bezala.

Egindako ordainketen kontrolean ere aipatu arauetan finkatutakoari jarraitu zaio; hau da, onartutako zenbateko osoaren %10 ordaintzea obrak hastean, eta zenbatekoaren %20ko ordainketa partzialak. Horrenbestez, gaur egun arte, zenbateko osoaren %70 ordaindu da, lehenengo ziurtape-na errefusatu ondoren (zenbateko osoaren %60koa eta lehen obra-zuzendariak egina); kontzejuko korporazio berriak beste ziurtagiri bat aurkeztu du, obra-zuzendari berriak sinatua, korporazio horren adostasunarekin. Azpimarratzekoa da egindako ordainketak konturako ordainketak direla, eta obraren azken likidazioan erregularizatzen direla, obrak eta Foru Dekretuan haiek ordaintzeko erabakitako dokumentazioa aurkeztu eta egiaztatutako ondoren. Baina hori oraindik ez da gertatu.

Argi dago Departamentuko teknikariek obraren egoera ikusteko egindako bisitak ez direla aski haiek guztiak neurtzeko, kontrol hori obraren zuzendaritza fakultatiboari baitagokio; izan ere, obraren titularra den toki-erakundeak horretarako kontratatzen du zuzendaritza hori eta, kontraharreman horren ondorioz, berak zaindu behar du erakunde kontratatzailearen interesak betetzen direla, eta haren aurrean bere gain hartu behar du obra zuzen (obra-kontratuak jaso bezala) gauzatzeko delako erantzukizuna.

Azkenik, esan behar da modu berean aztertu zirela kontzejuak goi-presioko ur-hornikuntzarako hoditeria ustez premiazkoa zela eta eskatu zituen obretan planteatutako beharrak, eta beti baztertu zirela kontuan hartuak izateko behin eta berriz egindako eskaerak, Departamentuak ez baitzuen onartu obra horien premia, ez eta toki-entitate horrek proposatutako emariak eta dimentsionamenduak ere.

#### Bigarren alegazioa

Nafarroako Gobernuaren gomendioetan hau esaten da: "... toki-erakunde bati laguntzak ematean, kontuan hartu behar dira erakundeak egiten ari den inbertsio guztiak, bai eta haien bana-banako bideragarritasuna baimentzen dela ere.

Bada, Nafarroako Gobernuak departamentu batek kontrol hori egitean, oraingoz ez dauka hori oinarri izango den inolako arau-berrespenik; ez dugu ahaztu behar 2005-2008ko Azpiegitura Planari buruzko irailaren 29ko 12/2004 Foru Legeko arrazoi-azalpenean iradokizunaren guztiz aurkakoa esaten zela, honako hau jasotzen baitzuen hitzez hitz: "Deialdira jotzeko dokumentu-eskakizuna nabarmen murrizten da, eta ez du zuzenduta egon behar aurreikusi gabeko legezketasun-kontrolak egitera. Bideragarritasun-planak toki-entitateek aurkeztu beharko dituzte, baldin eta haien inbertsioak Planean sartzen badira funtsaren konturako gastu-konpromisoa finkatzeko orduan, eta beste neurri batzuk ere jasoko dira, plangintzaren kudeaketa azkarragoa lortzeko azken batean".

Are gehiago, Nafarroako Gobernuak departamentuek eman beharreko dirulaguntza eta laguntzetarako arauak, haien eskumen-esparruaren ondorioz, inoiz ere ez dute xedatzen "bideragarritasun ekonomiko orokorraren" kontrola izatea; horregatik, aurreikusi gabeko hipotesia izango litzateke eta, beraz, ezingo litzateke erabili dirulaguntza edo laguntza bat ukatzea justifikatzeko argudio gisa.

Nolanahi ere, kontrol-elementu horrek (zeinaren balioa eta egokitasuna ez baitugu eztabaidatuko), gaur egun ez dagoen oinarri arau-emaile bat izatea eskatuko luke (esan bezala), bai eta gauzatzean erabili beharreko giza baliabideak eta baliabide materialak izatea ere; baina horiek ere falta dira.

Azkenik, ez dugu ahaztu behar "tokiko autonomia"-printzipioaren aplikazioa muga izan daitekeela Nafarroako Gobernuak egitea pentsa lezakeen fiskalizazio-jardueretarako; izan ere, toki-entitateek autonomia hori oso berea dutela sentitzen dute, eta "inbertsionista nahiz paternalistatza" jotzen dute beren ustez printzipio horren kontrakoa dela uste duten edozein jarduera, bai eta Toki Araubideko Oinarri Legeak eta Toki Administrazioako Foru Legeak esleitzen dizkieten eskumenen mugatzailetzat ere.

Hain zuzen ere, printzipio horren aplikazioaren ondorioa izan da, gure iritziz, legegileak kenduz joan izana aurrez zeuden zenbait kontrol, inbertsioetarako baimenak haien bideragarritasun ekonomikoaren baldintzapean jartzen zituztenak (Toki Administrazioako Departamentuak aztertzen zuen bideragarritasun hori), hori guztia aipatu Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 341. artikulatik 344. artikulura bitartekoek Departamentuari interes orokorraren babesgarri esleitzen dizkion fiskalizazio-ahalmen generikoak gorabehera.

Nafarroako Gobernuak behin-behineko txostenaz aurkeztutako alegazioei emandako erantzuna

## NAFARROAKO GOBERNUAK AURKEZTU-TAKO ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak lau alegazio aurkeztu ditu bere idazkian: bi Landa Garapen eta Ingurumeneko Departamentuarenak dira, eta beste biak Toki Administrazioeko Departamentuarenak.

Landa Garapen eta Ingurumeneko Departamentuarenak eta Toki Administrazioakoaren lehendabizikoa egindako jardueraren azalpenak, hedapenak edo justifikazioak dira, baina, gure iritziz, ez diote eragiten Nafarroako Comptos Ganberak egindako txostenaren edukiari.

Beste alegazioa hitz hauekin hasten da: "Nafarroako Gobernuaren gomendioetan esaten da toki-erakunde bati laguntzak ematean kontuan hartu behar direla erakundea egiten ari den inbertsio guztiak, bai eta haien bana-banako bideragarritasuna baimentzen dela ere".

Gure txostenean, bideragarritasun-ikerketek buruzko bi gomendio daude, berriz ere hemen jaso ditugunak:

*\* Bideragarritasun-ikerketen edukia aztertzea, alderdi hauek kontuan hartuta: zer urte erabiltzen den ikerketak egiteko; zer irizpide izan behar diren bideragarria ez den proiektu bat zatitzen denean; eta proposatutako finantzaketaren jarraipena.*

*\* Toki-erakunde bati laguntzak ematean, kontuan hartu behar dira erakunde hori egiten ari den inbertsio guztiak, haien bideragarritasuna banan-banan aztertu beharrean.*

Gure gomendioak ez dagozkie ez eskumenei, ez toki-entitateen autonomiari.

Gure gomendia hauxe besterik ez da: bideragarritasun-azterketak egiten direnean laguntzak emateko (aztertutako kasuetako batzuetan gertatu bezala), azterketa horiek orokorrak izan behar dute.

Argi dago, obra baten bideragarritasun-azterketa  $x$  urteko martxoan egiten bada, eta  $x-2$  urteko datuak hartzen badira ( $x-1$  urteko kontuak oraindik egin gabe daudelako), litekeena dela kontuan ez hartzea zenbait datu ekonomiko garrantzitsu eta, beraz, ondorioak okerrak izatea. Gauza bera gertatuko litzateke ekitaldi bererako aurreikusitako beste inbertsio batzuen berri izan ezean.

Hitz batean, gure gomendia tekniko hutsa da bideragarritasun-azterketak egin behar direnerako, eta ez dugu esaten azterketak araudira egokitzen diren ala ez.

Iruñan, 2009ko irailaren 10an.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## MURUGARRENGO KONTZEJUKO LEHENDAKARI OHIAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Juana Martínez Soler andreak —Murugarrengo bizilaguna, 33867600P NAREN jabea eta Murugarrengo Kontzejuko lehendakari ohia— honako hau azaltzen du:

Idazki bat jaso dut, idazten ari naizen hau jaso duen erakundeko idazkari nagusiarena, eta horretan jakinarazten zait hogeitau egun ditudala egokitzat jotzen dudan guztia alegatzeko Nafarroako Gobernuak Murugarrengo Kontzejuari emandako laguntza eta dirulaguntzei buruzko behin-behineko txostenaz; horrenbestez, denbora eta forma egokian, hauek aurkezten ditut:

### ALEGAZIOAK

1. Ohartarazi behar dut txostena prestatu bitarteko denbora osoan, nahiz eta txostenak nagusiki ni Murugarrengo Kontzejuko lehendakaria izan nintzen aldiaren egindako jarduerak fiskalizatu, erakunde kontrolatzailea ez dela inoiz ere harremantant jarri nirekin zerbait azaltzea eta argitzea eskatzeko eta, praktikan, ezinezkoa da lerro hauetan laburtzea eta azaltzea benetan zergatik egin ziren jarduera horietako batzuk.

2. Txostenaren helburua da zehaztea zenbat diru jaso duen kontzejuk laguntza horien bidez, aztertzea zer kudeaketa egin duen Nafarroako Gobernuak laguntza horiek ematean eta kontrolatzean eta, era berean, aztertzea zer kudeaketa-lan egin duen kontzejuk diruz lagundutako obrak gauzatu bitartean; horiek direla eta, alde honek hau baino ez du adierazi nahi:

A) Kontzejuk jasotako laguntzak direla eta, ados dagoela txostenean azaltzen den zenbatekoarekin.

B) Nafarroako Gobernuak obrak eman eta kontrolatzean egindako kudeaketari dagokionez, esan behar da kontzejuk beti egin zuela hurrenez hurrengo dirulaguntza-dekretuek ezarritako tramitazioa, eta ohartarazten du Nafarroako Gobernuko teknikariak zenbaitetan agertu zirela haiek ikusatzeko.

C) Kontzejuren kudeaketari dagokionez, esan behar da beti fede onez egin zela, udalerrirako ahalik eta hobekuntza gehien egiten saiatu zela eta kontzejuko idazkari gisa zegoen letratuak (beste udalerrri batzuetako idazkaria ere bada) esandakoei jarraitu zitzaizela.

## NORAINOKOA ETA MUGAK JASOTZEN DITUEN ATALAZ

Esan behar dugu kontzejuak, zalantzarik gabe, eta deialdi bakoitzean eskatutako dokumentazioa bidaltzea sine qua non baldintza izanik dirulaguntza bat emateko, beti bidali zuela eskatu zitzaion dokumentazio guztia, eta beti kontuan hartu zituela teknikariek obrek iraun bitartean egindako oharpenak.

## NAFARROAKO GOBERNUAREN KUDEAKETARI BURUZKO ATALAZ

Adierazi behar dugu kontzeju honek, obra bat premiaz esleitzean, hori prozedura egokiena zela-ko uste osoan egin zuela beti. Inoiz ere ez zen errekurritu adjudikazio horietako bat bera ere, nahiz eta, alde batetik, espedientean kontratazio-modua jasota egon, bestetik, Nafarroako Gobernuak toki-erakundeen jarduerak kontrolatzeko ahalmena izan 6/90 FLko 344. artikulua arabera eta, azkenik, nik, kontzejuan egin nuen kudeaketan lortutako esperientzian oinarrituta, kontrol hori egiten zela pentsatu.

Bestalde, epigrafe horretako 5. ataleko adierazpenari dagokionez (“...kontzejuak benetan egindakoa baino obra gehiago ziurtatu du eta, kasu batzuetan, hau adierazten da dirulaguntzak ordaindu aurreko txostenen: “... obra ikusatu eta berrikusita, badagokio hura ordaintzea”), esan behar dugu kontzejuak beti obra egiten zuenak obra-zuzendariaren kontrolaren ondoren aurkeztutako ziurtagiriak sinatzen zituela, eta beti uste zuela, betiere kontuan hartuta ez naizela teknikaria eta, horrenbestez, ezin nuela egiaztatu ziurtagiriaren egokitasuna, ziurtatutakoa benetan egindakoa zela. Egia da, obra hasita zegoela, kasu gutxi batzuetan eta teknikarien oharpenei jarraituz, proiektuan aldaketa txiki batzuk egitea erabaki zela.

Ohartarazi nahi dut egia dela departamentu batzuek obra ikusatu edo bisitatu egiten zutela, egiaztagiriak ordaindu aurreko baldintza gisa; hori guztiz egia da.

Zazpigarren adierazpenari dagokionez, hau baino ez dut esan nahi: beti eman ziren eskatutako datuak bideragarritasun-azterketak egiteko; azterketa horiek, nire ustez, zorrotzak ziren; are gehiago, txostenak dioen bezala, obraren bat ez onartzea ere gertatu zen.

Zortzigarrenari dagokionez, esan behar da ezer ere ez zitzaiola jakinarazi kontzejuko presidente ohiari, kontuez zekienaren ekarpena egin zezakeen arren.

## KONTZEJUAREN KUDEAKETAZ

Bederatzigarren puntuaz esan behar da egia dela zenbait adjudikazio presako prozeduraren bidez egin zirela, baina ez idazkari ziharduen letratu aholkulariak ez Nafarroako Gobernuak inoiz ere ez zuten esan prozedura ez zela egokia. Prozedura hori erabiltzeko arrazoia izan zen kontzejuko kideek, benetan, uste genuela jardueren premia onartutako prozeduretan adierazitakoa zela eta inork inoiz ez zigula kontrakoa esan.

Egia da, halaber, esleipendunak berak direla kasu askotan. Hori, kasu batzuetan, erabilitako presako prozedurak eragin zuen; eta, bestetzetan, lizitatzailerik gehiagorik ez izateak, txostenak berak jaso bezala.

Hamargarren puntuari dagokionez, esan behar da azken hauteskundearen ondoren kontzejuko lehendakaria izateari utzi niola, badakidala korporazio berriak obrak geldiarazi zituela eta zenbait kontusail gauzatu gabe geratu zirela, baina ezin dut horren erantzukizuna nire gain hartu.

Hamaikagarrenari dagokionez, kontzejuko kideek, ez baiken teknikari, beti onartu genituen teknikariek aurkeztu zizkiguten ziurtagiriak, eta inoiz ez genuen zalantzarik izan haien egokitasunaz.

Egia da, obra hasita zegoela, kasu gutxi batzuetan eta teknikarien oharpenei jarraituz, proiektuan aldaketa txiki batzuk egitea erabaki zela. Horren ondorioz, proiektuan aurreikusitako kontusail batzuk ez ziren gauzatu, eta hartan jasota ez zeuden beste batzuek ordeztu zituzten gauzatu gabeak, irizpide tekniko honi jarraituta beti: horrela jokatzeko obrarako onena zelako eta hura handitzea ez zekarrelako. Horregatik, bat datoz aurrekontuak eta egiaztagiriak.

Nolanahi ere, ez letratu aholkulariak ez Nafarroako Gobernuak inoiz ez ziguten esan okerra zela horrela jokatzeko, eta obra bakoitzaren gauzatzeko eta funtzionaltasunik onena bilatu zen beti.

Hamabigarren puntuari dagokionez, orduko jarduneko korporazioaren ustez beharrezkoak izan ziren egindako obra guzti-guztiak, eta nabarmen hobetu dituzte udalerriko azpiegiturak eta segurtasuna.

Aurreko kudeaketaz arduratu zen taldeari galdetu balitzaio, obra horiek egiteko izandako arrazoiak azalduko zituzkeen.

Hamalagarren puntuari dagokionez, argi dago kontzejuak zorra daukala eraikitzailearekin egindako obragatik eta ordaindu gabe dagoela, baina

alde honek ezin du zehaztu zenbatekoa, ez baitauka daturik.

Egia da, halaber, zorrak, baieztatuz gero, arriskuan jar dezakeela kontzejuaren bideragarritasuna. Hain zuzen ere, aurreko korporazioa hori saihesten ahalegindu zen, lursail publikoak prestatuz eta salduz gastuak ordaintzeko, baina egungo kontzeju-taldeak dena geldiarazi zuen eta, horrenbestez, ustezko bideragarritasunik eza gauzatzen bada, haien erantzukizuna izango da; gainera, egungo kontzejuko zenbait kidek egindako oposizioaren ondorioz, jadanik tramitatuta zeuden dirulaguntzak galdu ziren.

Hamabosgarren puntuaz den bezainbatean, egia da obra-bolumen handia egin zela, duela urte askotatik obrarik egiten ez zen kontzeju batean, beharrak handiak izan arren. Eta egia da gastuak lursailak salduz ordaintzeko asmoa zegoela, baina, dirudienez, korporazio berriak aukera hori baztertu zuen.

#### GOMENDIOEI DAGOKIENEZ

*\* Dirulaguntzak eta laguntzak emateko prozedurak, baldintzak eta frogaketak berriz aztertzea.*

Guztiz bat nator gomendioarekin, horrek guztiak beharrezko segurtasun juridikoa emanen dielako UDAL-KUDEATZAILEEI BEREI. Guztiz egia da kontzejuak, hain txikia izanda, laguntza behar duela inbertsio horiek egiteko. Kontzeju-arduradunek ezer gutxi dakigu legeez eta administrazio-prozedurez, eta kontrol hori nahiz frogaketa horiek areagotzeak, nagusiki, gure segurtasun juridikoari eginen dio mesede; izan ere, egun, txostenak jasotzen dituen jarduera guztiak ilusio handienarekin eta fede onez egitearen ondorioz gaude sartuta ulertzen ez dugun zigor-prozedura batean, baina Ganberak gomendatzen dituen mekanismoak lehenago izan balira, ez ziratekeen gertatuko.

*\* Bideragarritasun-ikerketak aztertzea.*

Guztiz egiten dugu bat irizpidearekin, ezin onartuzkoa baita Gobernuak eskatzen duena bete ondoren zalantzan jartzea, zigor-bidea erabiliz, gure lana eta ohorea. Hobe da ahalik eta kontrol gogorrenak eta zorrotzenak gainditu behar izatea, edonork, fede onez jokaturia ere, guk jasan behar izan duguna jasatea baino.

*\* Kontuan hartzea inbertsio guztiak, entitate bati laguntzak ematean. Irizpide hori ere geure egiten dugu, baina harritu egiten gaitu, hala jokatzen zela uste genuelako.*

Hiru gomendio horiekin batera, beste bat egiten genuke.

• Entitate txiki eta baliabiderik gabekoen kasuan, Nafarroako Gobernuak berak antola dezala kontratazio-mahaia eta administrazio-espeditatea egin dezala bai enpresak bai teknikariak kontratatzeko.

Hala jokatu balitz, kontzeju-arduradunei kendu eginen litzaieke horrelako proiektuak aurrera eraman behar izateak dakarkien zama ikaragarria, ez baitakite horretarako behar adina, eta aurreko gobernu-taldeak jasandakoaren gisako zigor-salaketak saihestuko liriateke; izan ere, talde horretako kideen helburu bakarra udalerrirako onena egitea izan zen beti, baina jarduera horien ondorioz haien bizitzan aldaketa pertsonal dramatiko gertatu da.

Murugarrenen, 2009ko abuztuaren 5ean

Murugarrenko Kontzejuko lehendakari ohiak:  
Juana Martínez Soler

Murugarrenko Kontzejuko lehendakari ohiak behin-behineko txostenari egindako alegazioei emandako erantzuna

#### **MURUGARRENGO KONTZEJUKO LEHENDAKARI OHI JUANA MARTINEZ SOLER ANDREAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA**

Lehen alegazioari dagokionez, Nafarroako Comptos Ganbera honek hau adierazi behar du:

– Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarak eskatutako txostenaren gaia hau da: “Nafarroako Gobernuako departamentu guztiek Murugarrenko Kontzejuari 2003tik 2008ra bitarte emandako laguntza eta dirulaguntza guztiak”.

– Bere lana egiteko, beharrezkoa izan zen zenbait egiaztapen egitea Murugarrenko Kontzejuari, hori baitzen dirulaguntzen hartzailea; eta, horretarako, harremanetan jarri zen hartako arduradunekin, beharrezko datuak eta informazioak lortzeko.

Geroago, egoeraren arabera egokituz jotako mementoan, eta behin betiko txostena eman baino lehen, txostena Murugarrenko Kontzejuko lehendakari ohiari helarazi zitzaion, beharrezkotzat jotzen zuena adieraz zezan eta, hala egokituz gero, behin betiko txostenean jaso zedin.

Gainerako alegazioei dagokienez, Comptos Ganbera honek uste du ez dutela eraginik txostenaren edukian.

Iruñan, 2009ko irailaren 10an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

